

aikor!

txorierriko aldizkaria

EUSKALDUNA ZARA?....



EUSKARA IKASTEN ARI(TU) ZARA?...



IKASTURTE BERRIA PRESTATZEN

E.class
Zamudio

Ingeles Klase
partikularrak

944520331

**TXORIERRIKO
ETORBIDEA, 14**

ESTUDIOS

Kolika Plaza, 2 - 4ºD
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 27 19

IKASTEGIA

Pakearen Plaza, 3-behea
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 50 13



Bertokon musika ikasi soilik?



Ez, ikasi eta GOZATU...



INFORMAZIO GEHIAGO:

615 74 95 70

615 74 95 68

686 58 92 38

bertokozamudio@hotmail.com



INGELESA
(Cambridgeko azterketak
E.O.E. eta abar)

FRANTZESA

TXINERA

EUSKARA

GAZTELERA

ESKOLA LAGUNTZA
(matematika, kimika,
naturaketa...)

ENPRESENTZAKO IKASTAROA

MAIOLA GUZTIAK

ORDUTEGI MALGUAK

**IKASGELA
AKADEMIA**

**ETORRI
ETA HIZKUNTZAK
IKASTERA ANIMATU**

Aita Patxi Ugaldé, 12
48196 Larrabetzu
Tf./Fax.: 94 455 89 11
ikasgela@hotmail.com

IKASI
IKASTEGIA

Enena kalea, 10 Lehen
Zemuriz

94 452 04 96
600 78 64 46

Erreformatu eta errehabilitazio eskolak
Ingeles eskolak
Maiola guztiak
Dirulaguntzak zamudioztarrentzat



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Kepa "Basurde", Pablo Martínez "Mortxe", Enrique Hurtado, José Luis Sodeto, Maripi Agirre, Eneko Bilbao, Eder Merino, Lurdes Prudencio, Unai Ugalde, Joseba Apezetxea, Igor Urrutikoetxea, Nextor Carcoba, Xabier Díez, Oihana Astobieta, Belen Gana, Inés Serrano, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

30 Marmolgintza: urrezko urte haiek



12 Martinez de Irujo, Barriola, Olazabal eta Zubieta



38 Jehovaharen lekukoak



28 Zamudioko heraldika

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 11Omenaldia, Lezaman 12Gurean izan da... Barriola, Olazabal, Zubieta eta Martinez de Irujo pilotariak 14Gaztea eta... Erlantz Atutxa 16Etxeko janariaren alde 18Publierreportajea 20Derioko Merkataritza eta Ostalaritza Astea 28Zamudioko heraldika 30Marmolgintzaren urrezko urteak 32Txorierritarrek munduan: Iran 34Lezamako martxa 36Zahar egoitza berria, Zamudion 38Jehovaren lekukoak 40Musika... Sabin Ugarte 41Teknologia 42Baserri mundua... Roberto Fernández 43Antxinako argazkia 44Sukaldaritza

ADARVE KAFETEGIA

Especialitatea:
gosturik
plater konbinatuak
pintxoak

GIRO ONA

Solako, 2 DERIO
TEL: 94 608 95 31

ALDEKONE FRUTADENDA

Bestenena, 3 beheko # Etenio-Bakika # T: 941 069 458

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unib. 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurkitutako doan

-Especialitatea:
umeak

Eskolara hastean



LURDES PRUDENCIO
(Andereñoa)

Oporretatik bueltan, gehienok jasan behar izaten dugu, frantsesek esaten duten moduan, *le rentrée* fenomeno. Aldizkari honetan ere gai hau hizpide izan da beste aleren batean. Lanean edota eguneroko ohikerian hastea ze gogor egiten zaigun helduoi zein umeei barra-barra darabilgu denon ahotan. Andereñoa naizen aldetik eta gauden sasoian egonda,

aita-ama gazte askori bezala, asko interesatzen zait etxeko txikiei eskolan lehen urratsak ematea zer suposatzen dien jakitea.

Gaur egun murgiltzen garen gizarte zoro honetan, gure txikiak eskolan lehenbait lehen hastearen garrantzia ez dugu zalan-tzan ipintzen. Arrazoiak arrazoi, beste umeekin jolastu behar dutelako, ikasi behar dutelako, euren sozializaziorako, garapenerako... Gauzak honela, saiatu gaitzen ahalik eta zuzenen jokatzeko, bai irakasleok eta bai gurasoak, umetxoek eskolarekiko lehendabiziko esperientzia goxoa eta samurra izan dadin.

Atera kontua! —esango du baten batek—, hauek koitadutxo hauek! Oinez hasi berriak, batzuk berbaz hasi gabeak, euren etxetik kanpo gau bat ere eman ez dutenak, gurasoen pure edo papila baino jan ez dutenak..., sei orduz ama eta aitaren beso lastangarrietatik kendu eta eskola arrotz eta handiegira!

Lasai! Andereñoak badaki berbak gain-

ditzen duen beste lengoia ere ulertzen, andereñoak jakingo du zer egin umea jausteko zorian dagoen unean, maitekiro hartuko du erremedio barik ezustean min hartzen duenean... Horrez gain, eskolak, beharrezkoa bada, jaten ikasteko aukera ere emango dio eta lotarako amets goxoak izateko txoko txukuna ere prestatuko dio.

Denbora tarteei dagokienez, gaitzagoa izan daiteke etxeko baldintza berberak eskaintzea, baina pertsona txiki honengan energia handia dago hau ere gainditzeko. Ume txikiak, kuman edo sehaskan daudenean esperimendatzeko dituzte amarengandiko lehenengo aldegiteak. Amak esaten dio bere umeari: "oraintxe nator, egon hortxe apurtxo batean". Eta bien arteko distantziaren hutsunea betetzeko txintxirrina edo jostailutxo ematen dio. Ama beti bueltatzen da, arin bueltatu ere. Eskolan hastean, apur bat gehiago luzatu beharko da tarteak, baina, jokoek, abestiek, dantzek, lagunek eta emozioek beteko dute hutsune hori eta umea bere bide propioa egiten hasiko da.

Eskolara hastean, umea estu-estu bersarkatu eta utzi alde egiten.

"Zenbat senide galdu dituzu, zuk? Alaba eta emaztea. Eta zuk? Amaginarreba..." Horiek dira telebistaren aurrean txuri utzi ninduten galdera inozoak. Barajaseko istripuan 154 hildako izan ziren; eta hala eta guztiz ere, kazetari askok horrelako galderak egiten zizkieten Ifema pabilioitik irteten ziren arima apurtuei. Sufrimendua kalkulatu nahian.

Nork ezartzen ditu kazetaritzaren mugak? Sufrimendua zirkotzat hartu da gaur egun gure lagun kuttunaren pantailan. Interpretazio nagusi baten aurrean gaude; sentimenduen salerosketaren garaian. Intimitateak intimitatea galdu du, eta dolu uneak ere telebistako *prime time*-an igortzen dira. Jendeak, audientziak goza dezan; zirkora edo jolas-parkera doan bezala. Horregatik, non daude mugak? Non amaitzen da lanbidea, eta noiz bueltatzen gara mundu errealerara?

Arazoaren zati garrantzitsu bat kazetari askok lanbidea enfokatzen duten tronu-

Eta gaur zer?



EDER MERINO
(Kazetaritza ikaslea)

tik dator. Kronika arrosak bereganatu ditu telebistako ordu gehienak: "Norekin izan dituzu sexu-harremanak azken aldiz? Norekin izan zinen gau hartan? Auzitara eramango duzu, ezta?". Tankera horretako galderak sarritan entzuten ditugu famatuekin solasean ibiltzen diren programa asko-

tan. Hortaz, kazetaritza gauzatzeko era zeken horrek kronika arrosaz gain, beste muga batzuk ere gainditu ditu, telebistako berrietara heldu arte.

"Zenbat senide galdu duzu? Sufritu egin zuten? Hegazkin istripua gertatu eta hurrengo egunean entzun ahal izan genituen galderok. Kamara piztu, biktima enfokatu, alkatxofa ahora sartu eta hasiera eman zitzaion zirkoari. Edozein programa arrosaren platoan egongo bagina bezala. Antzerki hori audientzia ezjakin baten morbo-gosearekin nahasten badugu, arriskutsua da emaitza.

Gauzak aldatzen ez badira, palomita janean egingo diogu aurre sufrimenduari. Pantailan hondamendiak, izurriteak, gu-dak... ikusten ditugun bitartean, afaltzeko zer dagoen galdetuko dugu egunero bezala. Bihotzak mugimendu berezirik eskaini gabe. Sufrimendua antzerkitzat joko dugu, edozein prezioan sal daitekeena. Eta gu ikusle hutsak izango gara jendez gainezka dagoen zinema erraldoi honetan.

Miguel Angel Parra
Aislamientos Doria

TARIFEAK
PLASERREFKO SARAIAN
ETA APALATECIAK
-SABAI
ERRERASTURARRIAK
-ISOLAMENDU TERMICO
ETA AKUSTIKOAK

Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 670 497 928
Fax: 944 541 121

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 91 602 75 25 6

desira
Belleza, salud y bienestar

Lifting mediante radiofrecuencia
Fotodepilación
Bronceado "sunless"
Ozonoterapia
Masaje terapéutico
Decoración de uñas

Urbe kalea 6, eskumako kanja - DERIO - Telefonoa: 91 151 55 75

Goiherri, munduko txapelduna!

Argazkia: Eneko Bilbao



Goiherri taldeak Sokatira Munduko Txapelketa irabazi du 560 kiloko kategorian. Txapelketa lurraren gainean izan da eta Stenungsund hirian (Suedian) egin dute hilaren hasieran.

Euskal Herrira ailegatu bezain pronto izugarritzko harrera jaso zuen taldeak: Mikel Arieta-Araunabeña Erandioko alkateak eta herritarrek ongi etorria eman zieten tiratzaileei aireportuan bertan. Aurrekua eta guzti dantzatu zen txapeldunen omenez. Jose Luis Orozko 'Txelis' en mutilak kamioiz heldu ziren Erandiora eta han merezitako jaia ospatu zuten auzokideekin.

'Txelis' entrenatzailea pozik azaldu zen. "Sailkapen ona espero genuen, baina irabazi izana egundukoa izan da. Zail eduki dugu titulua eskuratzea, talde onen kontra aritu baikara". Erandiogoikoko mu-

tilak Ipar Irlandako Garagh taldearen aurka aritu ziren finalerdian; eta Ingalaterrako Sandhurst taldearen kontra finalan. Beste alde batetik, 640 eta 720 kiloko kategorietan ere hartu zuen parte Goiherri, baina ezin izan zuen lehenengo postua lortu.

Goiherri sokatira taldea 2004. urtean ere izan zen munduko txapelduna, eta bigarren postua lortu zuen 1988. urtean Suedian. Lurra alde batera utzita, gomaren gainean ere badituzte txapelak, 1990. eta 1991. urteetan lortutakoak esate baterako. Goiherri hiru urte eman ditu txapelketa ofizialetan parte hartu barik, nazioarteko federazioak ez baitzuen ontzat hartzen sokatirako euskal federazioa. Arazoak azaro, klub moduan utzi diete parte hartzen Suediako txapelketan; selekzio moduan, ordez, ezin dira lehiari aritu.

Euskara ikastaroentzako dirulaguntzak

Aurreko urteetan bezala, 2007-2008 ikasturtean homologatuta dauden euskaltegi edo barnetegietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituztenei dirulaguntza emango die Txorierriko Mankomunitateak. Eskabideak udaletxeetan jarriko dituzte eskuragarri eta urriaren 6tik azaroaren 6ra bitartean aurkeztu beharko dira udaletxeetan bertan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte, besteak beste: 16 urtetik gorakoak izatea; 2005eko urriaren 1etik Txorierriin erroldatuta egotea; ikastaroen orduen %90 edo gehiagoko asistentzia edukitzea; eta ikastaroa gaindituta izatea. Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa honakoa izango da: matrikularen %75 eta %100 bitartekoa, Oinarrizko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenentzat; matrikularen %50 eta %75 bitartekoa, ikasturte barruan langabezia gelditu direnentzat; eta %25 eta %50 bitartekoa, gainontzekoentzat.

Beharrak, Larrabetzun

Basara auzoko saneamendu-proiektuaren hirugarren faseko beharrak laster hasiko dira Larrabetzun. Beharren ondorioz, Uribaso eta Emanuene baserriak lotu egingo dira uriko kolektore nagusira, eta egitasmoa amaitutzat emango da. Udalak 121.000 euro inbertituko ditu beharretan.

Beste alde batetik, aterpea be egingo dabe eskolan. Atsedenaldia frontoian emon behar dabe ikasleek euria danean, eta aterpea gabezi hori beteko dau. Aterpea saskibaloiko zelaian egingo da, eta uriko umeek eta gaztetxoek eskolako ordutegitik kanpo be erabili ahaliko dabe. Beharrak martirako amaituta egongo direlakoan dago Udala. Proiektuan 222.113 euroko inbertsioa egingo da: Eusko Jaurlaritzak diruaren %40 jarriko dau; eta gainontzekoa, Udalak.

CAFETERIA GRISSON

Fluxua eramateko janaria
Urtebetzeak egiten dira
Asteartetik igandera zutabak

Garaioltza, 12 B. behe
Telefonoa: 94 452 11 05
www.cafeteriagrisson.com
48198 LEZAMA (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

Merceria Karmele

Txorierriko bidebidea, 7 ZAMUDIO T: 94 452 02 17

KIMA Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Goikoltza 59 • Tel. 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (Bizkaia)

BAR BIDE-BI

Zamudio
Aukeratu zurea!

goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizola Lehendakaria plaza, 3

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreanagaite Ind. B - 216 Pab.
Tel.: 94 452 87 89 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Emakumeen saskibaloitalde bi osatu dira Derion

Derioko Saskibaloit Taldea 1995. urtean sortu zen eta hiru denboraldi eman zituen lehiaketa federatuetan parte hartzen. Azkeneko 97-98 denboraldian izan zen, eta harrezkero taldea geldirik egon da urte askotan. Hala ere, eskola moduan jarraitu du aurrera, eta gazteek entrenamenduak egiteko aukera izan dute.

Taldearen ardura eskuz aldatu zen joan den urtean, eta zuzendaritza berriak taldea berriro federatuta egotea hartu zuen erronkatzat. Horrezaz gainera, beste helburu bat ezarri zuen: emakumeen talde bi eta mutilen talde bat osatzea. Gauzak ondo atera dira, eta emakumeen taldeak sortu dira aurretik. Bata junior mailan arituko da eta

bertan 1991. urtetik 1993. urtera bitartean jaiotakoek hartuko dute parte. Besteak senior mailan jokatu du eta 1990. urtetik aurrera jaiotako jokalariek osatuko dute.

Arduradunek behe-mailako taldeak ere osatu nahi dituzte, eta horretarako, gazte txoak saskibaloit eskolara joatera animatzeko deia zabaldu dute. Taldean izena eman nahi duten gazteek zein nagusiek klubak kiroldegian duen postontzian utz dezakete eskaria edo harremanetan jartzeko era.

Beste alde batetik, taldea Gabonetako loteria saltzen dabil. Eskuratu nahi duenak kiroldegian galde dezake edo postontziaren bidez kontaktuan jarri klubarekin. Bazkide kanpaina ere egingo dute.

San Martin jaietako kartel lehiaketa

San Martin jaiak iragartzeko VII. Kartel Lehiaketarako deia zabaldu dau Zamudio-ko Udalak. Lehiaketan gura dabenez guztiak har daikie parte eta gehinez be lan bi onartuko dira egile bakoitzeko. Kartelaren gaia, teknika eta kolorea libreak izango dira. Tamaina 45x60 cm-koa izango da eta euskarri zurrunean finkatuta aurkeztu behar da.

Lanak urriaren 13ra arte hartuko dabez udaletxean. Egilearen sinadura barik aurkeztuko dira eta kartazal itxian datu honek sartuko dira: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa. Irabazleak 300 euro jasoko du sarritzat. Lanak Zamudiotarren jarriko dira ikusgai, zemendiaren 8tik 18ra arte.

Agur Josu Loroñori

Gaixotasuna luze eta nekezaren ostean, irailaren 13an zendu zuen Josu Loroño Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoaren sortzailea. Loroño 1929. urtean jaio zen Larrabetzun, eta piano eta armonia ikasketak egin zituen Bilboko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Akordeoi Orkestra Sinfonikoa 1963. urtean sortu, eta bakarlarientzako obra sorta zabala egokitu eban instrumentu horretara. Bere ibilbide artistikoa dela-eta, hainbat erakunde omendu dute Josu Loroño maisua: Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, euren artean.





Bocateria
Otarteko
Pizzeria

ETXEZ ETXERAKO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 9 44 52 11 42

NEKA-MUTLEN
HARRERATZEA

ESTILISTA
EVA ARDINES

AmAr

Antzerria - Odetza - Gitarra - Saxoia
Larrendak - Botak 140000

Uribia Plaza, 1 - Deha 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 34 19 (Aurreko izanda)



HAKAGITIECIA
ALBERTO

Txorierri etorbidea, 5
Telf.: 452 08 26
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Telefonoa: 94 431 71 37
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

San Migel jaiak, Larrabetzun eta Lauroetan

Irailean San Migel jaiak ospatuko dituzte, Lauroetan, Derion eta Larrabetzun. Aldizkaria inprentara eraman orduko Lauroeta eta Larrabetzuko jai-egitarauak baino ezin izan ditugu eskuratu. Hortxe dituzue:



LAUROETA

Irailaren 27a, zapatua

09:00: IV. Mendi Ibilaldia

13:00: Jaien hasiera eta txosna-gunea zabaltzea

18:00: Umeentzako jokoak eta zinea

20:00: Usain Anaiak orkestra

21:15: Saiheski eta txistorra jana

22:30: Usain Anaiak orkestra

Irailaren 28a, domeka

10:30: Kalejira

11:00: Meza

12:00: Artzain txakurren XXIII. erakustaldia

13:30: Asier Kidan eta Paco magoen erakustaldia

15:00: Herri-bazkaria (baserritarrez jantzi-ta)

18:00: Loiuko dantza taldearen emanaldia

19:00: Idi eta zaldi-probak

21:00: Erromeria

Irailaren 29an, astelehena

10:30: Kalejira

12:00: Meza

13:00: Briska Txapelketa eta Urgaritxo jaurtiketa

18:30: Tiragoma jaurtiketa

20:30: Bertsolariak

22:00: Ahuntzaren zozketa

22:30: Jaien amaiera eta txokolatada

Egun osoan zehar umeentzako puzgariak, gaztelua eta rokodromoa

LARRABETZU (EILEXETA)

Irailaren 29an, astelehena

Meza eta kopaua

12:30: Mus txapelketa

13:00: Trikitixa

Irailaren 30ean, martitzena

Meza eta kopaua

12:30: Briska txapelketa

Trikitixa

Urriaren 5ean, domeka

12:30: Briska txapelketa

13:00: Trikitixa

14:30: Herri bazkaria (Paella).

Txartelak, Kultura Etxean eta eskantekoetan

14:30: Bola-jokoa, koadrilen artean



ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1

Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28

48150 SONDIKA (Bizkaia)



LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 6
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Era eskolako pintxoak - Plater kombinatuzak
800entak inoia
Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel. 94 452 26 75

MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak

Torrelarragoli Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel/ Fax: 94 608 01 41 - 2



Uztarriko 9 Zabaldea, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Teléfono:
630 71 75 61
94 452 33 91

Fax:
94 452 33 93

BBK-k katamaloa erantziko du betiko

Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubak (BBK) *Katamalo* lana aurkeztu zuen 2006. urteko abenduan. Lana Gotzon Barandiaranek idatzitako olerkietan oinarritutako musika ikuskizuna da, eta ardatz nagusia besteen aurrean janzten dugun maskara du; hau da, katamaloa.

Ikuskizuna hainbat txokotara eraman dute harrezkero, eta eszenatoki gainean katamaloa erazten joan dira apurka-apurka. Baina maskara behin betiko kentzeko ordua ailegatu da, eta hori azaroaren 1ean egingo dute.

BBK-ko lagunek *ERANTZI katamaloa* zuzenean diskoa grabatu zuten ekainean Gernikako Lizeo antzokian, eta bertan azken urte biotan zuzenean eskaini dutena erakutsi nahi izan dute. *Katamalo* disko-

Azken kontzertuak

–Urriaren 2an, 20:00etan, Urtue-llako Gorbea Aretoan.

–Urriaren 9an, 21:30ean, Gasteizko gaztetxean.

–Urriaren 16an, 20:00etan, Iruñako Gurutzeko Plazako Institutuaren Aretoan.

–Urriaren 22an, 20:30ean, Donostiako Gaztescenan.

–Azaroaren 1ean, 22:00etan, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian.



ko zazpi kantu eta poemez gainera, beste 14 kantu eta poema berrik osatzen dute lana; 21, guztira. Diskoaren eta azken kontzertuen aurkezpena irailean egin zuten Bilboko Kafe Antzokian.

“Eskerrik asko etxekoei, lagunei, etsai-
ei, ezagunei, ezezagunei, zuenera gonbi-
datu gaituzuen antolatzaileei, gure ema-
naldietara hurreratu zareten guztiei, gure
diskoa entzun eta liburua irakurri duzue-
noi, gure emanaldien berri iragarri duzue-
noi... Bitartean, Bihotz Bakartien Klubeko
atzeko ateak zabalik dirau”.



Argazkia: Aritz Albaizar



**KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA**

Ida. kidea, 3. Aldekoa 938 34 79-66
GUREN BIZKAIA

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**


MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
elortzeagailik



**LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA**

UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA
LASER-DEPIAZIOA

Mungialde-etorbidea, 20 DE BILBO
T: 94 454 26 52



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEA**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



**SAGAROTEGIA
ANKAPALU**

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
**LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)**

Aibaltaritza

HENAR ORTUONDO
DE BILBO

Adm. Henar Ortuondo
Tlfnoa.: 94 454 20 27
48100 (BILBO) (Bizkaia)

DERIO

LARRABETZU, 23. Aldekoa
Tlfnoa.: 94 454 31 31 - Aldekoa 100



HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pekoaen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonua: 941 543 705

Talde dinamizatzaile batek uritarren eritxia jasoko dau



Larrabetzuko Udala Hirigintzako Plan Orokorra berraztertzen dabil eta hasierako onespina emon baino lehen, ezinbestekoa dau uritarren eritxia jakitea. Horretarako, talde dinamizatzaile bat kontratatu dau.

Taldeak 300 inkestatik gora egingo ditu etxerik etxe, eta herriko alkarte eta taldeakaz batu be egingo da. Taldeak sexu eta adinaren arabera osatuko dira, besteak

beste. Mahai gainean jarriko diren gaiak honeek izango dira: uritarrek zelango Larrabetzu gura daben etorkizunean, zelango etxeak, zelango komunikabideak... Eritxiak batu eta Hirigintzako Plan Orokorrean sartuko dira.

Taldea urrian hasiko da inkestak egin, eta proiektuak hiru hilabete iraungo dau.



DOLORES MARTINEZ DERIOZTARRAK 100 URTE BETE DITU. Irailaren 18an oso egun berezia izan zen Dolores Martinezentzat, izan ere, derioztarrak 100 urte bete zituen egun horretan. Lander Aiarza Derioko alkatea eta hainbat zinegotzi emakumearen etxeraino hurbildu ziren arratsaldean zoriondu eta opari bat ematera. Dolores seme-alabekin eta ilobekin zegoen etxean. Emakumea 1908. urteko irailaren 18an jaio zen eta 12 seme-alaba izan ditu. Horietako bederatzi daude bizirik. Era berean, 23 iloba eta 23 biloba ditu. Dolores mende bat betetzera heldu diren emakume bakarrenetarikoa da.

GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU
 Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

Peluleria
Estetika
 94 455 81 44
 Argita 7. Indarra Larrabetzu Kerkira

Miguel Angel Lekue, garrainalaria
 LARRABETZU
 656 786 744 94 455 80 20

BARATEGIA
J. ELORRIAGA
 Etxeko berezitasuna: bertoko okela
 Iturrikotxe, 7
 Tfnoa: 94 455 89 41
 LARRABETZU

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
 EDUKIMENIA, GONBIZI OITONIA, HONDAKIA, BERRIKUNTZA, BERRIKUNTZA
 BARRUTIAKIN ZERBITZUA
 Card Mari, auzoa, 1
 Tel: 94 454 18 66
 Fax: 94 454 17 10
 48178 ZAMUDIO (Bizkaia)



SANTI MAMI
 ALKATEZARUA
 Nerea Pedrosa Cu, 317
 48178 ZAMUDIO (Bizkaia)
 Tel: 94 454 18 66
 Fax: 94 454 17 10

Batzar Nagusietara sartzearen urteurrena ospatu dute derioztarrek

Gernikako Batzar Nagusiek eskubide osoko elizategizat onartu zuten Derio 1688. urteko irailaren 24an. Harrezkero 320 urte igaro dira eta derioztarrak handitasunez ospatzen dabiltza urteurrena.

Ekitaldi instituzionala irailaren 24an egin zen. Oroitzapenezko monolitoa desestali eta ikurrina jaso zuten Uribe parkean. Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea eta Lander Aiarza Derioko alkatea ekitaldiaren buru izan ziren. Baina aurretik beste ekintza batzuk

izan dituzte herrian. Horrela, Rubik Kuboko Europako Txapelketa Derion egin zen, eta Kepa Junkera trikitilariak kontzertua eskaini zuen, besteak beste. Gurutze Beitia umoristaren eta Golden Appel Quartet taldearen emanaldiez ere gozatzeko aukera eduki zuten derioztarrek.

Beste alde batetik, Oskorri taldeak kontzertua emango du urriaren 10ean, 22:00etan, Mikel Deuna plazan. Kontzertu hori urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan dago antolatuta.



Hegazti erakusketa egingo da Zamudion

Urriaren 17tik 19ra bitartean, 'Eoalak' Hegazti Hazkuntzaren Nazioarteko I. Erakusketa izango da Zamudion. Erakusketan hegazti hauek jarriko dituzte ikusgai, besteak beste: oiloak, antzarak, ahateak, indioilarrak, usoak eta pintadak. Era berean, Kantauri Itsasertzeko Arraza Autoktonoko Hegaztien Hazkuntzari Buruzko II. Monografia ere egingo dute. Ekitaldiak hauek antolatu dituzte: Zamudioko Udalak, Euskal Abereak, Eoalak, FRESACOCUR eta Kantauriko gainerrako elkarteak. Erakusketez gainera, jardunaldi teknikoak ere izango dira.



Hasiera emon jako Lezamako IV. Frontenis Txapelketari

Lezamako kiroldegiko IV. Frontenis Txapelketa irailaren 21ean hasi zan. Hori Udalak eta Hiru Ber Hiru Kirol Zerbitzuak antolatu dabe.

Txapelketan 18 urtetik gorakoek hartuko dabe parte eta partiduak bikoteka jokatu dira. Guztira 14 bikote ibiliko dira norgehiagoka, eta partiduak abendura arteko zapatuetan izango dira. Lezaman erroldaturik dagozan lau bikoterik onenak Txorierr mailan jokatu dan txapelketan egongo dira.

Beste alde batetik, Lezaman gailentzen diran hiru bikoteek sari honeek jasoko dabez: oroigarria eta 120 euro kirol materialean; oroigarria eta 80 euro kirol materialean; eta oroigarria eta 60 euro kirol materialean.

eleizalde
kafetegia

Lainemendi, 7
(Lizarraren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 454 52 88

 **Inmobiliaria ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobiila: 607 32 35 53 48160 DERIO

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nahca
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ganisa
OINETAKOAK - OSAGARRIAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrerar Goiko kaletik)
tfnoa.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak



Tallerreri kafea. 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

 **ERREKA LONDO**
ETXEA

Eguneko menua, estaburuko menu berezia,
karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak,
famillan bazkariak

Artzaga, 80
Zamudio 48160 (Bizkaia)
Ifnoa: 94 452 14 39
Faxa: 94 452 25 29

Tarsik eta Marcik omenaldi beroa jaso dute Lezaman

Une hunkigarria bizi izan eben lezamarrek Andra Mari jaietan; izan be, bertako Pilota Eskolak merezitako omenaldia egin eutsen Tarsiri eta Marciri. Senar-emazteok oso harreman estua eduki dabe alkarteagaz.

Jaime Uriarte Pilota Eskolako presidentek azaldu deuskun legez, Tarsik 29 urtean eroan dau frontoiko taberna, eta horrezaz ganera, kantxa eta aldagelak mantentzea be izan dau ardura. Beste alde batetik, Marcik alkartearen zuzendaritza-batzordean hartu

“*Senar-emazteak oso harreman estua izan dabe 29 urtean herriko Pilota Eskolagaz*”

dau parte hainbat urtean. Aurtengo uztailean, frontoia itxi eta Calahorrara joan dira bizi izatera. “Laguntza handia jaso dogu eurengandik, eta oso behar ederra egin dabe. Omenaldia merezi ebela pentsatu genduan”.

Calahorratik Lezamara. Herriko jaiak eta pilota partida aitzakiazat erabili ebezan antolatzaileek. Frontoian bertan izan eben Tarsik eta Marcik omenaldiaren barri, eta zirrarak eragindako malkoak bota ebezan. “Beno, egia esan, guztiok bota genduzan



Argazkia: Joseba Apeztexea

malkoak”

Egun horretan pilota partidu bi jokatu ziran eta atsedeenaldian egin eben omenaldia. Pilotariak aurkezpen-paseoa egin eutse senar-emazteei eta Alaitz Etxeandia Lezamako alkateak oroitzapenezko plaka bana emon eutsen. Era berean, alkartearen diruzainak lore sorta bat oparitu eutsan Tarsiri, eta presidenteak klubaren urrezko eta brillantezko intsignia emon eutsan Marciri. “Oso ekitaldi hunkigarria izan zan; polita, benetan”.




**SARRIKOIA
OGITEGIA**

ETXAK, MOITIA, PATATZORRUKIA, IL, BOTOZKOI, PATATZORRUKIA, PATATZORRUKIA

San Roke, big. Lezabatu
Tel: 94 406 83 37
Calahorra tel: 910 70 83 84



**multiprecio
Rakel**

Lezabatu, 11. barneko — 48160 DERIO
Sakelako telefonoa: 665 70 28 35



**MAPFRE
DERIO**

Garbiko Mapfrekoa

Polizien plaza 2/1a
48160 DERIO (Bizkaia)
T + 94 454 82 90
F + 94 454 41 85
mapfre.es@mapfre.es

harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 • DERIO 48160 • T: 451 52 94

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-zerbitzuak, orokorrean
Auzoetako komunitateak
Mantentze jarduerak
Pileta eta labeak
Urtze-merkatu garbiketak
Bantzenak
Zabere bitartea

Brazale Plaza, 1 - R^o Aldikoma
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskaltel.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Juan Martínez de Irujo, Abel Barriola, Mikel Olazabal eta Aitor Zubietak, pilotariak

“Pilotariok udan disfrutatzen dugu gehien”

Pilota modan dago AIKOR! aldizkarian: uztailean Bengoetxea VI.a izan genuen, eta orain Barriola eta Martínez de Irujo etorri zaizkigu Mikel Olazabal eta Aitor Zubietarekin. Lau pilotariak binakako partida jokatu zuten Lezamako jaian, eta takoak ipintzen zituzten bitartean harrapatu genituen. Oso solasaldi atsegina izan zen barre artean, sasi euskaraz, sasi gaztelaz. Giro paregabe batean Irujo eta Barriola bozera-maile aritu ziren, batez ere.

Txorierriko herrietan pilota eskola bana dago. Ezagutzen dituzue?

Abel Barriola: Hemengoak ez ditut ezagutzen, baina Leitzan ere, nire herrian, eskola bat badago eta oso ona da. Mikel (Olazabal) Aresokoa izan arren, Leitzako pilotalekuan ere hezi da. Gure frontoitik pilotari asko ateratzen dira, pilota lehenengo kirola baita herrian. Futbolak ere jarraitzaile asko ditu, baina aritu, pilotan aritzen da gehien.

Pilota gero eta oihartzun handiagoa hartzen dabil. Nola ikusten duzue fenomeno hori? Eta etorkizuna?

A.B.: Nire ustez, pilotak ikaragarritzko aurrerapausoa egin du azken bolarik honetan. Telebista ezinbestekoa da goi mailako edozein kirol kontsumo handikoa izan dadin. Pilota, zorionez, nahiko kirol erraza da saltzen, eta, erakargarria denez, telebistan ematen dute. Booma izan zen aspaldian; batzuek pasatuko zela esaten zuten, baina pilota oraindik jarraitzen da ikusten. Zaletasun handia dago herrialde guztietan eta telebista horren lekuko izatea seinale ona da.

Udan partida asko daude. Zenbat jokatzen dituzue?
Juan Martínez

de Irujo: Ahal beste (kar, kar). Pilotariok udan jokatzen ditugu partidarik gehienak, eta ondorioz, hura da gehien disfrutatzen dugun sasoi. Hilean hamar bat partida joka dezakegu. Txarrena da batzuetan jarraian aritu behar dugula. Baina garairik onena da guretzat: partida asko daude eta gainera, inoiz baino presio gutxiagorekin, erakustaldiak eta jaialdiak baitira; ez txapelketa garrantzitsuak. Guk gustura jokatzen dugu eta txartela ordaindu duten lagunak ere gustura sentiarazten saiatzen gara. Partidak dibertigarriak dira. Hainbeste jokatzen duzunean nekatzen zara, baina irabazteko beharra ez da hain handia.

A.B.: Denboraldi bi izango balira bezala da. Bata, txapelketena, urritik ekainera arte jokatzen dena. Tarte horretan, buruz burukoa, lau t'erdikoa eta binakakoa daude. Haiek maila ematen diete pilotariei. Bestean, hau da, udan egiten den denboraldian, herriko jaialdietara joaten gara: San Fermin, San Mateo, La Blanca... Garrantzitsuena negua da, baina beste jaialdietan ere maila on bat emateko eskatzen zaie pilotariei. Izan ere, telebista bertan dago eta ondo aritu behar da.

J.M.I.: Ze ondo hitz egiten duen Abelek. Edozein hizkuntzatan gainera, e! (kar, kar). Eraginik du telebistak pilotalekuaren barruko portaera?

Mikel Olazabal: Telebistari esker jende askok ikusten ditu partidak, eta bertan dagoela jakinda, ahalegin berezi bat eskatzen diozu zeure buruari.




“Zubietak: Jendea da garrantzitsuena pilotan; zale barik ez dago ez kirolik, ez ezer”

“Irujo: Barriola eta Titin dira faboritoak lau t'erdiko txapela irabazteko”

“Barriola: Uste baino hedatuago dago pilota: Salamanacan 2.000 lagun biltzen dira partida bat ikusteko”

“Ormazabal: Telebista frontoian dagoenean, ahalegin berezi bat eskatzen diozu zeure buruari”





A.B.: Horregatik, topera ibili behar dugu urte osoan.

Baina partida guzti-guztiak ezin dituzue jokatu...

A.B.: Ez, fisikoki ezinezkoa baita.

M.O.: Eta eskuak ere zaindu behar ditugu. Partida batzuetan neurtu behar duzu ahalegina; guztietan ezin da %100 eman. **Pilota kirol ikusgarria da. Hala ere, Euskal Herrian baino ez da jokatzeko. Kanpora zabaltzeko aukerarik ikusten duzue?**

A.B.: Uste baino hedatuago dago pilota. Udan Salamancara joan behar izan dugu noizbait, eta 2.000 lagun bildu dira partida ikusteko. Eta Burgosen eta Sorian ere antzeko gauza bat gertatu da. Frontoi dotoreak ere badaude Euskal Herrikan kanpo. Dena dela, leku horietan benetako zaletasuna pizteko, hango pilotariren bat sortu beharko zen. Arazoa hau da: bertako gazteak udan hasten dira pilotan eta neguan nekatzen dira, urtaro horretan erabiltzen den pilota gogorra baita. Horrek eskuetako mina sortzen du, ondo babestu ezean.

Datorren txapelketa lau t'erdikoa da. Zelan zabilzate prestatzen?

M.O.: Lehenik eta behin, lehenengo partida irabazi behar da, eta gero ligaxka. Horraino ailegatuz gero, anbizio osoz jardungo dut.

J.M.I.: Ni laurdenetan hasiko naiz, Abel moduan. Nire ustez, Abel eta Titin dira faboritoak. Gainontzekook maila apur bat baxua-

goa dugu.

A.B.: Bai zera!

Azken hamarkada honetan errematatzaile on gutxi egon dira, Titin izan ezik. Ados zaudete? Zein izan da maisua, zuen ustez?

J.M.I.: Zuk zeuk esan duzu, Titin bezalakorik ez da egon. Berdin dio pilota motak, beti dabil ondo.

Errematatzaileek partida biziagoak jokatzen dituzte. Ez da hori jendeak nahi duena?

J.M.I.: Bai, interesgarriagoa da. Jendeak ez ditu atsegin ez pilotakada luzeak, ez atzelarien arteko jokoa. Jaialdietan, batez ere.

Eta nork du horren ardura, publikoak ala jendeak?

Aitor Zubietak: Lehenik eta behin, jendeak. Zalerik ez badago, ez dago kirolik, ez ezer. Aritzeko momentuan, aldiz, gure esku dago.



40106 LEZAMA, BIZKAIA

NEURRI LEZAMA, T. R. LEZAMA

EXCAVACIONES AZURMENDI

mpelart@excavacionesazurmendi.com

MOBIL: 649 102 122

Tel/Fax: 944 554 150

Programak eta Webguneak

zeure neurrira eginda

erabakiak hartzen lagunduko dizugu

Tel/Fax: 94 656 99 03/01
www.leinak.com

Elbereth

ostotika eta masaje-zentroa
gizonentzat eta emakumeentzat


CASIMIRO 4, BARRIO (VILLAS) 1 DOBARRIO (BARRIO) 40100 SONDRA
Tel: 94 400 76 181

ESTADO DE AMATADA, 27, 1. - 2. BARRIO 40000 BILBO
Tel: 94 410 716 81

“Besteak ibil daitezela elkar jotzen”

Zaila da Erlantz definitzeko hitzik topatzen. Izan ere, 19 urteko loiuztarra saltsa askotan ibili den eta dabilen mutila da. Ikus dezagun zertan.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Nondik hasiko gara?

Ba, hasieratik. Oso ume geldiezina nintzen, eta amak kirol mundura hurbildu ninduen, ea lasaitzen nintzen! Hortik datoz nire amets gaizto biak.

Zeintzuk?

Ez nekien igeri egiten, eta amak Laredoko Klub Nautikoan –udak herri horretan ematen ditugu– sartu ninduen lau urte nituela. Esperientzia txarra izan omen nuen lehenengo egunean, antza, hurrengo goizean ohe azpian topatu baininduen. Klub hori gorrotatzen dut harrezkero! Urte bi geroago tenisarekin saiatu ginen. Oso txarra nintzen, bat ere ez nuen asmatzen! Bitartean, txistua jotzen eta dantza egiten ikasten nen-

bilen ikastolan.

Beldurra kendu diozu urari, gaur egun surfa egiten duzu eta.

Ez, inoiz ez diot beldurrik izan urari; klub horretako igerilekuari baizik. Bera handiegia zen, eta ni, txikiegia. Igeri egiten ikasi nuen eta izugarri gustatzen zait. Beste alde batetik, piraguismoa egin nahi nuen, surfa

“Malgutasun handiko mutila naiz; lagunek “amorfoa” naizela diote”

barik. Baina gurasoek ez zidaten utzi, eta anaiarekin joan behar izan nuen surf eskolara. Eskerrak! Pasada itzela da olatuak harrrapatzea! Kirol ederra uda emateko.

Txistu eta euskal dantzen mundutik zaldien mundura egiten dugu salto.

Laukarizko Klub Hipikoan hasi nintzen hamar urterekin, eta lau urte eman nituen han. Oso gustura egiten nuen kirola zen. Eta helburu handirik gabe: neugatik eta neuretzat egiten nuen, disfrutatzeko, besterik ez. Tim zaldia gogoratzen dut bereziki: bizitzan ikusi dudana lehenengo zaldi arrea da.

Baina hipika utzi zenuen, euskal dantzei berriro ekiteko.

**Iñaki Valladares**
Osteopata eta masajista
R.O.P.-eko kidea
Quiro-Pharma
Osteopatía y Masaje
Mileta bidea 7 behean
48150 SORBUKA
94 408 99 48

**nexis**
www.nexis.es
IP Bide-zaintza Argazkilaritza
Errepresentazio Informatika
Junglere, 1 | 48150-SORBUKA | Tel: 94 433 25 22 - 908 43 89 22

**MAYORISTAS INFORMÁTICOS**
EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>



Lagunengatik izan zen hori. Guztiek Loiu-ko dantza taldean eman zuten izena, eta nik erabakia hartu behar izan nuen: zaldiak ala lagunekin egotea. Lagunak aukeratu nituen, eta ez naiz damutu. Irmotasun handia eskatzen duen arloa izan arren, oso gustura nago taldean. Entsegu guztietara joaten ahalegintzen naiz.

Taekwondoan duela zazpi urte hasi zinen...

Badaukat gerriko beltza. Gerriko beltza izanda, bederatzi dan eskuratzeko aukera dago, eta nik bi dauzkat. Malgutasun handiko mutila naiz –lagunek “amorfoa” naitzela diote–, eta horrek izugarri laguntzen dit saltoa egin edo ostikadak emateko orduan. Berdin dio aurkaria metro bikoa bada; beti ailegatzen naiz ailegatu behar den tokira (kar, kar).

Zerk erakarri zaitu kirol honetatik?

Kirolak berak baino gehiago, maisuak klasean sortzen duen giroak eta zabaltzen duen lasaitasunak. Horrek klasean jarraitzera animatu nau, eta gauza asko ikasi ditut ondorioz. Lagunak ere egin ditut, eta ez nau inork hemendik aterako!

Euskadiko bigarrena zara teknika arloan; noraino gustatuko litzaizuke ailegatzea? Espainiako lehenengoa izatera, baina oso zaila iruditzen zait. Arbitro bakoitzak bere irizpideak ditu eta guztiek ez dute era berdinean arbitratzen.

Ibilira zara borrokan?

Noiz edo noiz ibili naiz, baina oso mutil lasaia naiz eta hau da nire leloa: besteak ibil daitezela elkar jotzen. Ah, maisu ere banabil Loiu-ko udal ikastaroetan.

Igor Yebra dantzariaren akademian izan zara joan den ikasturtera arte. Nola ailegatu zaizu aukera hori?

Nire malgutasunaren berri izan zuten lehenengusinarekin bidez, eta, probak egin ostean, urte biko beka eman zidaten. Oso esperientzia polita izan zen eta asko eskertzen diet beka hori eman izana, baina niri ez zait dantza klasikoa gustatzen. Akademia horretara doazen lagunek buru eta bihotz ekin nahi diote dantza klasikoari; eta nik, ez. Taekwondoa nahiago dut.

Emanaldirik egin zenuen?

Bai, *Intxaur-jauskailua*, Arriaga antzokian. Egunkarian ere agertu ginen!

Aldi berean saltsa askotan zabil-tza eta ibili zara. Korapilatsua da guztiei aurre egitea, ezta?

Ez! Uda amesgaiztoa da niretzat, ez daukadalako zer eginik. Oso pertsona aktiboa naiz, eta eguna beteta izan behar dut. Oso ordutegi egokiak eduki ditut orain arte, eta arazo barik uztartu ahal izan ditut ekintzak. Gakoa gauzak ondo

“Uda amesgaiztoa da niretzat, ez daukadalako zer eginik”

“Egiteko ditudan gauzak? EGA atera, txistuari berriro ekin eta hapkidoa ikasi”

antolatzea da!

Ekintzak eta ikasketak. Zer ikasten zabil-tza?

Psikologia. Oso karrera interesgarria da, eta, gainera, unibertsitatean ikasitako gauza asko praktikan jartzeko aukera dut: taekwondo eskola ematen dieran umetxoekin, batez ere. Ingelesa ere banabil ikasten, ea *Advance* titulua lortzen dudana!

Zer geratzen zaizu egiteko?

EGA titulua lortzea –euskaltegian izena emateko asmoa dut aurren–, eta berriro txistua ikasten hastea. Hapkido borroka-artearekin saiatzea ere gustatuko litzaizuke.

Izan ere, erraldoia ere bazara Bilboko Aste Nagusian.

Goierriko dantza taldeko batek egin zidan proposamena iaz, eta animatu egin nintzen. Pitxitxi eraman dut sorbaldan joan den urtean eta aurren. Neke-tsua da eta sorbaldak apur bat sufritzen du, baina dantzatzeko zozaz musikarekin batera eta ondo pasatzen da erraldoiaren barruan.



Eurek egin, eurek jan

Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak ikasturtea inauguratu zuen Sondikan, eta Larrabetzuko umeeek sukaldaritza zerbitzu barik eman zioten hasiera kurtsoari. Hezkuntza Sailak langileak kendu ditu zeharkako kudeaketa duten eskola-jantokitik eta ikasleak etxera joan behar izan dira bazkaltzera, edo bazkaria etxetik eraman eskolara. Egoera horrek astebete iraun du eta guraso elkarteak sukaldariak berak kontratatzea erabaki du azkenean.

Argazkiak: Maripi Agirre

Larrabetzuko gurasoen elkarteak 25 urte daramatza eskola-jantokia kudeatzen eta horrek dituen beharrianak betetzen. Hezkuntza Sailak dekretu bat atera zuen 2000. urtean eskola-jantokiak arautzeko, eta mota bi ezarri ziren: zuzeneko kudeaketa duten jantokiak eta zeharkako kudeaketa-koak.

Lehenengoak Administrazioak kudeatzen ditu erabat: catering-enpresa kontratatu, langileak jarri, erantzuna eman beharri-zanei... Zeharkako kudeaketa duten jantokiak guraso elkartearen esku daude, eta Administrazioak sukaldaritzako pertsonalaz hornitu ditu duela gutxira arte.

Hezkuntza Sailak eredu biak eman zizkien aukeran gurasoen elkarteek, eta Larrabetzukoak zeharkako kudeaketako ereduarekin jarraitzea erabaki zuen. "Harrezkero Administrazioak ez ditu jantokiaren gabeziak bete nahi izan, eredu mota aitzakiatzat hartuz. Eman duten gauza bakarra sukaldaritzako pertsonala izan da; beste guztia geuk jarri dugu: babesleak, tresneria... Horiek ordaintzeko dirua jantokira joaten diranen kuotetatik atera da, eta kuota Administrazioak beste eskoletan ezartzen duena baino merkeagoa izan da".

Apirilean ohar bat zabaldu zen ikastetxeetan eta bertan hau azaltzen zuten: Hezkuntza Sailak sukaldaritzako pertsonala berrantolatuta eta zeharkako kudeaketako zentroetatik kenduko zuen denboraren poderioz. Gainera, ez zuen ordezkorik jarriko bajak betetzeko.

Guraso elkarteek Koordinadora bat sortu zuten BIGEren (Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarte) bitartez, eta hainbat bilerara izan dute Administrazioarekin. "Guztietan erantzun bera eman digute: sindikatuekin akordio batera ailegatu dira eta

“ Gurea ez da kapritxoa; kalitate eta jasangarritasunaren aldeko apustua egiten dugu **”**



arrazoi teknikoak direla-eta ezin dutela erabakia aldatu. Luzapena eskatu genuen uda aurretik ikastetxe bakoitzaren egoera aztertzeko eta konponbideak bilatzeko, eta ukatu egin digute irailean. Hala ere, ez digute jantokia kudeatzen jarraitzeko baime-na kendu".

Sukaldariak bajan

Ikasturtea hasi eta gurasoek aurre egin behar izan diote arazoari: sukaldari biak bajan zeuden eta Administrazioak ez zuten ordezkorik jarriko. Gurasoek aukeraturako ereduari eutsi eta Hezkuntza Sailari presioa egitea erabaki zuten. Bitartean, seme-alabek liburuak ez ezik *tupperware*-a ere eraman behar izan dute klasera, edo etxera joan dira bazkaltzera. Baina egoera eutsiezina izan da guraso batzuentzat eta, azkenean, gurasoen elkarteak sukaldaritzako pertsonala berak kontratatzea erabaki du. "Dena dela, borrokatzen jarraituko dugu eta aztertuko da Administrazioaren erabakia -bere langileen ordezkorik ez jartzeari legezkoa den". Langile berriak kontratatzeak gastu gehigarria ekarri die eta horri aurre egiteko Hezkuntza Sailak ezartzen duenarekin parekatuko dute jantokiko kuota. Zailtasunak edo beharrianak etorri ahala joango dira gainditzen.



Larrabetzuko gurasoen elkarteak argi utzi nahi izan du euren jarrera ez dela kapritxoa. "Ez dugu seme-alaben eguneroko menua catering-enpresa batek erabakitzea. Guk dietistekin egiten dugu behar eta menu orekatuak eta era askotakoak aukeratzen dira. Hainbat urtean zehar seme-alabek eskolako jantokian bazkalduko dute bost egunean, hamar hilabete, eta ondo jaten ikastea oso inportantea da eurentzat. Gainera, kalitatezko eta sasoiko jangaien alde egiten dugu eta ekarpena ere egiten diogu inguruneke jasangarritasunari, gure hornitzaileak bertokoak baitira".

I WANT YOU BAI & BY-N



ESKAITZA BEREZIAK

**ZENTRO BERRIA
ZAMUDIO-N**

**TEKNOLOGI PARKEA
103 - ATIKOA
944 31 80 47**

GETXO

**ALGORTAKO ETORBIDEA, 76
944 91 50 80**

BILBO

**URKIXO XUMALDEA, 22
944 70 18 57**

bai & by

Langileon prestakuntza eta espezializazioa hobetzeko helburuz

Behargintzak enplegatuentzako prestakuntza ere emango du

Langabetuei zuzendutako profesionalizazio ikastaroak ematen jarraituko du



Behargintza Txorierri enplegatuei –beste- ren konturako langileei zein autonomoi- zabaldu die prestakuntza-eremua. Horrek lanbide-prestakuntza osatu nahi dutenei ezagutza espezializatuak ematea du hel- buru, enpresaren barruan edo enpresatik kanpo lanpostu hobeak eskura ditzaten, esate baterako. Prestakuntza programetan hauek daude, besteak beste: informatika- aplikazio espezializatuak (3D diseinua, aurrekontuen kudeaketa...), zerga eta kon- tabilitate arloko espezializazioak edo este- tika arloko espezializazioak.

Era berean, eta aurreko urteotan egin den bezala, langabetuen beharrak ere har- tzen ditu kontuan Behargintzak presta- kuntza-eskaintzaren barruan. Hori, lan barik luze egon ondoren, lan mundura sartu edo birziklatzeko lehen urratsa izan baitaiteke langabetuentzat. Ikastaroetan klase teorikoak eta lantokiko praktikak ematen dira, eta Mankomunitatearen barruan zein kanpo enplegu-eskaintza handia duten sektoreak hartzen dituzte xedetat.

AURREZ IKUSITAKO IKASTAROAK

LANGABETU EDO JARDUNeko LANGILEENTZAT	AUTONOMO EDO EKINTZAILEENTZAT
Okintza eta Opilgintza	Enpresa kudeaketa emakume ekintzaileentzat
Segurtasuneko jagolea trebatzea	Bulegotikako tresnak enpresaren kudeaketan erabiltzea
Eraikinetan energia berriztagarriak instalatzea	Lan-kudeaketa enpresa txiki eta ertainei zuzenduta
Geriatriako laguntzailea	Enpresa txiki eta ertainen fakturazioaren kudeaketa
Infografia 3D animazioa	Enpresa txiki eta ertainen aurrekontuaren kontrola
Estetikako espezializazioa (azazkal-protesiak eta aerografo bidezko makillajea)	Komunikazioa eta salmentak enpresa txiki eta ertainetan
Kontabilitateko Plan Orokorrera egokitzea eta horren zerga-ondorioak	Oinarrizko PRLa
Presto (Eraikuntzako informatika-programa)	Kudeaketa eta kalitatea enpresa txiki eta ertainetan

Informazio gehiago: Behargintza Txorierri Txorierri Etorbidea, 46-Berreteaga Poligonoa 13A 48150 SONDIKA (Bizkaia)
 Telefonoa: 94 453 63 70 • Faxa: 94 453 13 44 • www.txorierri.com



Amaia Díez, Behargintza Txorierriko Prestakuntzako eta Laneratzeko teknikaria

“Lan merkatuak ezartzen digu jardunbidea”

Profil bereziko profesionalik eskatzen dizuete enpresek?

Enpresetatik hurbil egotea funtsezkoa da, euren beharrianak modu zuzenean ezagutzeko. Ezagutza hori enpresa jakin bati, enpresa-talde bati edo sektore bati zuzendutako prestakuntza-jardueretan jorra daiteke.

Bat datoz enpresek eskatzen dutena eta langabetuen eskaerak?

‘Behar dena’ eta ‘gustatzen zaiguna’ ez datoz beti bat. Gu pertsonak bideratzen saiatzen gara, askotan enplegua non dagoen badakite ere. Gure lana hau da: enplegu, sektore edo lanbide batek eskatu eta ematen duenaz ohartaraztea.

Nola proposatzen da prestakuntza?

Ardatz nagusi bi ditugu abiapuntu: enpresak edo merkatuak behar duena eta enplega daitezkeen pertsonen profila. Ibilbideak aztertzen ditugu, lanean arrakastaz txertatu ahal izateko ezagutzak, trebetasunak eta esperientzia eskura ditzaten. Izan ere, %60 inguruko enplegua lortu da, besteak beste. **Badago lanpostua bermatzen duen prestakuntzarik?**

Prestakuntza egokiak lanean azkar txerta-

tzea dakar sektore batzuetan. Hala ere, badaude alderdi pertsonal batzuk errazak ez direnak prestakuntza edukietan sartzen: norberaren jarrera, erantzukizuna, konpromiso-maila, komunikatzeko trebetasunak eta trebetasun sozialak, autonomia eta erabakitze edo taldean lan egiteko gaitasuna, adibidez.

Gehien eskatzen diren arloak

Ostalaritza eta sukaldaritza, enpresei zerbitzuak ematea, garbiketa, segurtasuna, lorezaintza, harrera eta telefonozko arreta, biltegiaritzea, garrarioa eta banaketa, merkataritza, galdaragintza, mekanizazioa, soldadura, delinearitza, administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea, ekoizpen automatizatua, osasuna, hirugarren adinekoentzako zerbitzuak, irudizko zerbitzu pertsonalak, kirola eta aisialdia...

na, adibidez.

Lantokiko praktikak hartzen dituzte barne ikastaroek?

Praktikak egitea komenigarria da hainbat faktore direla-eta: esperientziarik eza, lan merkatutik kanpo luze egon izana, adina, oso lan espezializatua izatea...

Zergatik trebatu jarduneko langileak?

Lan merkatuak berak ezartzen digu jardunbidea. Langabezia-mailak oso baxuak izan dira joan den urtera arte, eta hori gertatzen denean, biztanleria aktiboa trebatu beharra dago. Espezializa eta profesionaliza daitezten. Enplegu hutsaz baino, enpleguaren kalitateaz ari gara.

Norantz jo behar du prestakuntzak etorkizunean?

Ezin gara gelditu, enplegua lortu ondoren. Lanpostu baterako beharrezkoak diren trebetasunak eta ezagutzak urtez urte aldatu egiten dira; eta gero eta azkarrago, gainera. Premia berriak sortzen dira prestakuntza arloan, eta garai, toki eta behar desberdinetara egokitu behar dira. Langilearen bizitza aztertu behar da, baita lan-merkatua ere. Baina ez orokorrean; langile bakoitzaren bizi-kalitatea kontuan hartuz baizik.

Derioko Merkataritza eta Ostalaritza Asteak gazteak hartuko ditu ardatz nagusitzat



Urriaren 10ean eta 11n, Merkataritza eta Ostalaritza Astea egingo dute Derion. Bigarren aldiz egiten da aste hau, aurtengoak nobedadeak ekarriko dizkigu aurrekoaren aldean. Izan ere, besteak beste, gazteentzako ekintzak eta talde lana bultzatzen duten txapelketak prestatu dituzte antolatzaileek.

Argazkiak: José Luis Sodeto

“Gauza gutxi egiten dira orokorrean 14tik 18 urte bitarteko gazteentzat. Haiek gure bezeroak izan litezke, eta zaindu egin behar ditugula uste dugu. Gurera erakarri behar ditugu; eurekin ere gogoratzen garela ikus dezatela”. Derioko Merkataritza eta Ostalaritzako II. Asteak hainbat txapelketaz gozatzeko aukera emango die herriko eta Txorierriko gazteei. Besteak beste, Hiru vs Hiru Saskibaloia Txapelketa eta Wii Txapelketa izango dituzte. Lehenengoa txapelketa mistoa izango da, eta kirolean mutil eta nesken arteko berdintasuna bultzatzea izango du helburu. Bigarrenak talde lanari egin nahi dio ekarpena, eta irabazleei wii kontsola bana emango zaie saritzat. Bata Udalak ordainduko du, eta bestea, Merkataritza eta Ostalaritza Elkartek.

Etxeko txikiek ere izango dute zer egin eta zer ikusi. Makillaje, birziklatze eta goma-apar tailerrak antolatu dira, eta Toni La Sal aktoreak antzezlan eskainiko du zapatuan. Baina elkartek familia osoa animatu nahi du Astearen parte hartzera, eta, horretarako, “Atxorren bila” ekimena

egingo da. “Euskal pertsonaia historiko bat hartu, eta herriko dendetatik zehar pistak emango dira parte-hartzaileek topa dezaten”. Horrezaz gainera, Dardo Txapelketa, Karaokea eta Txokolata ere izango dira. Antolatzaileek erosketak txakeak banatuko dituzte txapelketen irabazleen artean,

“Txorierriko merkataritzagune bihurtu nahi dugu”

herriko dendetan erabiltzeko.

Aurtengo Merkataritza eta Ostalaritza Asteak oso egitarau berria proposatuko digu. “Moda-gala antolatu dugu orain arte. Hori oso ondo atera da beti; hala ere, aurreko formulak ekiditen saiatu gara, eta astea-ri ukitu berria eman”. Ekitaldiak euskaraz egingo dituzte, hizkuntza bultzatzea ere elkartaren helburuetako bat delako.

Webgunea

Derioko merkataritza sasoi onean dago, elkartaren ustez. Prezio lehiakorak, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dituzte, eta hori badakite derioztarrek eta Txorierriko beste herrietako lagunek. Enpresetako lagunak ere hurbiltzen dira herriko dendetara, eta askok bertan egiten dituzte erosketak.

Beste alde batetik, elkartaren webgunea laster jarriko dute martxan. Webgunea oso dinamikoa eta erabilgarria izango da eta herriko dendetan dauden eskaintzak agertuko dituen atal bat edukiko du. Erabiltzaileek ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izango dute. “Zerbitzu hobe eman nahi dugu, Txorierriko merkataritzagune bihurtu”.



Berbalagun, euskararen ahotsa

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarten Federazioak eta Mankomunitateak Berbalagun proiektua jarri dute martxan. Proiektuak helburu hau du: euskaldunak eta euskalduntzen dabiltzanak harremanetan jartzea elkarrekin, euren artean euskara modu naturalean erabil dezaten herriko edozein txokotan.

Testua: Oihana Astobieta



Mintza Eguna 2007, Donostian

Asko dira euskaraz berba egiteko ohitura-rik ez duten txorierritarrak. Batzuek ume-umetatik jakin arren, ez dute euskaraz berba egiten, eta beste askok, oster, nagu-sitan ikasi dute euskara, baina gero ikasi-tako hori ez dute praktikatut. Arrazoiak ere asko izan daitezke: txarto egingo duten beldurra, lotsa... Edo, beharbada, norekin berba egin ez edukitzea. Berbalagun egi-tasmoa hutsune hori betetzen ahalegindu-ko da eta horretarako, euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak batuko ditu. Batzuek hizkuntza praktikatut ahal izate-ko; eta besteek euren ezaupideak konpar-titit ditzaten. Guztiek euskaraz berba egi-teko ohitura barnera dezaten.

Baina Berbalagun proiektua ez da berria Txorierriin. Arrekikili Larrabetzuko euskara elkarteak aspaldi bultzatu zuen urian, eta Tximintx euskara elkarteak duela hiru urte jarri zuen martxan Derion. Aurtengo ikasturtean bailara osora zabal-duko da proiektua, beste herrietako eus-kaldunek ere har dezaten parte esperien-tzia zoragarri honetan. Berbalagun egitas-moa TOTOANek (Arrekikili, Zorritzetan, Lagatzu eta Tximintx) eta Txorierriko Mankomunitateak antolatu dute elkarla-nean, AEKren eta Udal Euskaltegiaren la-guntzarekin. Era berean, babesa jaso dute



Derioko Berbalagunen argazkigintza ikastaroa



Derioko M^a Jesús, Esther eta Txaro kafea euskaraz hartzen

Txorierrin zabalduz



**berba
Lagun**

Izena emateko

–Telefona:
635 75 35 95 (Oihana)

–e-mail:
txorierrri.berbalaguna@gmail.com

–Non:
Txorierrriko Mankomunitatea
Txorierrriko euskara elkarteak
Udal euskaltegia
Txepetxa AEK euskaltegia

–Noiz arte:
Urriaren 24a

Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaiko Foru Aldunditik.

Norentzat

Berbalagun egitasmoa 17 urtetik gorako pertsonentzat da. Orain arteko parte-hartzaileek hainbat arrazoi aipatu dituzte Berbalagun proiektuan izena emateko: euskara praktikatzea, euskara maila hobetzea, euskara ikasten dabilenari lagundu gura izatea, lagun talde berria ezagutzeko aukera izatea, euskara plazaratzeko norberaren ekarpen txikia egitea, erdi ahaztuta duten hizkuntza berreskuratu nahi izatea.

Egitasmo honetan parte hartzeko bete behar den baldintza bakarra hau da: euskaraz berba egin nahi izatea. Eta horretarako, nahikoa da astean ordubete libre izatea. Berbalagun proiektuak euskaraz hitz egin



Mintza Eguna 2008, Getxon

nahi duten lagunak elkartuko ditu; non, noiz eta zertarako, parte-hartzaileek eurek erabakiko dute: kafe bana hartzeko, paseatzera joateko, seme-alabekin jolasteko, poteoan ibiltzeko, kartetan jokatzeko, mendira joateko...



Pili aranak batzen

Berba egin soilik?

Euskaraz berba egiteaz gain, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute berbalagunek. Izan ere, egitasmoaren arduradunek ekintza osagarri sorta zabala antolatuko dute hilero, parte-hartzaileek elkar ezagutzeko eta euskaraz edozer egin daitekeela erakusteko: mendi irteerak, ikastaroak, bazkari-afariak, txangoak... Ikasturte amaieran, Mintza Egunean hartuko dute parte. Mintza Eguna Euskal Herri osoko berbalagunak batzen dituen jaialdia da.



Hästens 
since 1852
Guztion ametselako
ohreak

www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda
Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

Berbalagun egitasmoa Txorierrin

Jakingo dozuen moduan, Txorierriko Mankomunitateak 2007 urtean hurrengo 4 urtetarako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu eban, 2007-2010 urteetarako plana hain zuzen be. Eta horretarako hainbat txorierritarren iritzia jaso genduazan, nondik nora jo erabaki ahal izateko.

Iritzi horreen artean, nagusienetako bat txorierritar askok euskara jakin badakiela, baina gero ez dabela erabiltzen izan zan. Ba omen dagoala zeozelango lotsa, beldurra, konfidantza eza... eta horri zelan edo halan aurre egin behar geuntzala.

Ganera bertoko euskaldun zahar askoren artean be, badago eus-



SORKUNDE AIARZA
Txorierriko Mankomunitateko
Euskara Arduraduna

keraz txarto berba egiten daben sentzazinoa, euren euskera txarra, zatarra edo antzeko zeozer dalakoan.

Horrexegatik, eta gure hizkuntza Txorierriko kaleetan gehiago entzun ahal izateko Berbalagun egitasmoa Txorierri osora zabaldu gura izan dogu, orain arte bai Derion bai Larrabetzun martxan izan dan egitasmoa izanik, nahi daben txorierritar guztiek norbaitegaz euskaraz berba egiteko parada euki dagien, eta gure euskera eskoletatik aparte beste edonon be entzun eta erabili dagigun.

Animatu zaiteze bada taldeetan parte hartzera eta euskera erabiltzera. Badakizue, "PIXKA BAT ES MU-CHO".

Nondik norakoak

Mintzapraktika programen mugimendua Donostian sortu zen 1993. urtean, Bagera euskara elkartearen eskutik. Geroago, Lasarte, Arrasate eta Getxora zabaldu zen. Programen inguruko lehenengo mintegia Eibarren egin zen 1998. urtean, eta handik urte batera Mintzapraktika batzordeak sortu ziren AEKn eta Topagunean (Euskal Herriko Euskara Elkarten Federazioa). Bizkaian Berbabarri egitasmoa aurkeztu zen 2001. urtean. Egitasmoa Bizkaiko Foru Aldundiak, AEK-k, Uztarri euskaltegiak eta Topaguneak bultzatu zuten, mintzapraktika programak koordinatzeko. Bost urte geroago hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzeko, eta iaz AEK eta Topagunearen artean gauzatu zen akordioa.

Herrien eta euskalkien arabera, izen ezberdinak erabiltzen dira mintzapraktika programak izendatzeko: Berbalagun, Mintzalagun, Mintzakide, Solaskide, Zaharberri... Gaur egun 48 mintzapraktika egitasmo daude Euskal Herrian; 2.450 berbalagun inguru.

Mendi irteera Haitz Zorrotzera



Herrero Plaza, 1
Tel.: 945 059 509

48160 DERIO (BIZKAI)

Nahikari

Bibxitegia • Eriñju-denda

WATER PROOFING
GEL-IMPREGNATION

INTIUS FORTINA VICTORY

Nire Autocasion **NA**

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRABERA) 48160 DERIO-BIZKAI

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

FISKO OKUTETAN ESPEZIALIZATUA ETA FITXERIO-GOIZUNTZA APART

ESKONTZAK, BATAJOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Lomeko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoiñezun 180 tuki - Sakalderitza tradizionala

Teléfono 94 454 07 88 Fax 94 454 14 18

Mungaiako etorbidea, 25
48160 DERIO



leke,s jatetxea

Tel. 94 454 29 86
restaurantelekes@gmail.com
Santimami, 2. Zamudio. 48170

EGUNEKO MENUA

BAZKARI ETA AFARI BEREZIAK
(ALDEZ AURRETIK ESKATUTA)

CATERING

WIFI GUNEA

LANTALDE BERRIA
KALITATE-PREZIO ERLAZIDRIK ONENA

NON GAUDE:



ARTISTA GAZTEEN LANAK
JANTOKIAN, IKUSGAI

“Gura dugu eta euskara hutsean egingo dugu. Kito”

Berbalagun egitasmoa orain bost urte jarri zuten martxan Larrabetzun, eta Isabel Etxebarría “Xiberu” da arduradunetako bat



Euskaldun zaharra zara? Berria?

Euskaldun berria.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Hamalau urte nituela. Haiek beste garai batzuk ziren. Koadrilako gehienak batera euskaldundu ginen, eta “berbalagun” egitasmoa era ezin naturalagoan gauzatu genuen: gura dugu eta euskara hutsean egingo dugu. Kito.

Zergatik jarri zenuten martxan Berba-

lagun egitasmoa urian?

Arrekikili euskara elkartetik bultzatu zen orain dela bost urte. Beste herri batzuetako egitasmoen berri bagenuen, eta, beste alde batetik, urteak generamatzan Larrabetzuko erdaldunak euskara ikastera animatzeko ideiarekin. Ezagun euskaldun batzuk konbentzitu genituen bariku arrastietan euskara gutxi zekitenekin osteratsu batzuk egiteko, eta han-

dik aurrekoa historia da jadanik.

Noiz batzen zara zeure taldeko lagunekin? Zertarako?

Astean behin batzen gara ordubetez, kafea hartzeko orduan.

Beste ekintza osagarriak antolatzen duzue?

Hasieran ikastarotxoak antolatu genituen, norberaren trebetasunak eta ezaupideak elkarri erakusteko. Eta, bide batez, afaritxoak-eta egiten genituen.

Zelango ekarpena egiten dizu euskara ikasten dabilenari laguntzeak?

Pena ematen du ikustek jendea zenbat ordu sartzen dabilen euskara ikasten,

*“Jendeak euskaraz
egiteko duen beldurra
ken daitekeela
sinesten dut”*

eta ikasitakoa zein gutxi aprobetxatzen duen. Haiei laguntzeak ekarpen hau egiten dit: nahiz eta herri euskaldun batean bizi, jendeak euskaraz egiteko duen beldurra ken daitekeela sinestea.

Zenbat berbalagun zarete Larrabetzun?

Kopurua aldatzen doa urterik urte. Gainera, urte bi daramatzagu euskara tailerra egiten. Hori Berbalagun egitasmoaren osagarria da. Iaz 20-25 bat lagun ibiliko ginen egitasmoan. Jendea animatu nahi dut Berbalagunera etortzera, euskara tailerrera etortzera... Baina, batez ere, euskaraz egitera, gure esku dago eta.



Oguiza
Hertz Klinika

mirando las imágenes
Oguiza Hertz
Lanzamos una campaña conjunta
Polisán, Sika, Sika y Sika
Hertz y Sika para mejorar
Oguiza Hertz
Construcción de una plataforma
Sika y Sika
Sika y Sika

Regulador de parámetros. 1 43196 LARRIBETZU • Teléfono: 94 406 68 50

ALTZARIEN ZAHARBERRITZEA
Antzinako altzariak
Herria Zingando

1. Erakundeak: 13, 1. erakundeak
LOIU 48160
Tel: 910 300 250

IKASTURTEA

08 09

MATRIKULA IREKIA

IRAILAREN
23RA ARTE

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA



Euskalduntzea eta alfabetatzea
HABEko 1, 2 eta 3. maila (EGA)
Ezpeziak: gurasak, etorkinak, merkatariak, enpresak...
Autoikaskuntza zerbitzua interneten bidez (BOGA)



ZAMUDIOKO KAMARA KORALA

Oharra:

-Ez duzu zertan solteorik jakin behar
Entsalok: Asteartean 20:45etatik 22:15etara

TFNOA: 695759211



10 gara! 20rekin hobe!
Zatoz gurekin abestuz disfrutatzen!
Ez zara damutuko!





mihia jan dizu katuak?

aek la ciencia de enseñar la lengua amistosamente

TXEPETXA EUSKALTEGIA 944 543 967 TXORIERRIKO **aek**

Gorbea kalea 5, behea | txepetxa@aek.org

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEAK ETA EUSKO JAURLARITZAK DIRUZ LAGUNDUTA

el efecto afecto

Armarriak: jauntxo eta leinuen

Amagoia Guezuragak, “Elementos heráldicos en la iglesia de San Martín de Arteaga de Zamudio” liburua aurkeztu dau irailean 8an. Lan horretan eleizan dagozan armarriak eta horreei jagokezan leinuak aztertu ditu, besteak beste.

Argazkiak: Amagoia Guezuraga



Presbitergo aurreko burdinazko hesia

Ikerlanaren ardatz nagusia Joaquín María Enrique Enriquez Álvarez de Toledo jauntxoaren inguruko garaian kokatu dau Guezuragak. Enriquez Álvarez de Toledo orain Zamudiotorre lez ezagutzen dogun dorretzeko ugazaba eta eleizaren patroia izan zan 1758-1792 urteetan.

1772. urtean eleizan erretaula berriak egiteko enkargua eman eban, baita presbitergo aurreko burdinazko hesia eta patroia jesarlekua be. Baina Joaquín María eta Za-

mudioren arteko erlazioa nondik datorren ulertzeko, ezinbestekoa da Zamudio eleizatearen historiako atal batzuk ezagutzea, eta horreek be jaso ditu egileak liburuan.

Zamudio leinukoek Arteaga dorretxea eta Arteagako San Martín eleiza altxatu ebezan, eta azken horrek Zamudioko patroia bihurtu zituan. Patroiek eskubideak ebezan: hamarrenak kobratzea, euren jesarlekua eta hilibia izatea eleizan... Betebeharrak be baebezan, eta herritarrek ahalmena eben horre-

ek guztiak betearazteko. Erlijio-boterea eta ekonomikoa, hortaz, jauntxoek eben; gizarte boterea, barriz, herri xeheak. Eleiz atariko mahaian alkartu eta ebatziak hartzen ebazan bertan.

Mihisea

Zamudio leinuko oinordekoak dorretxe eta eleizaren nagusi eta patroiak izan dira Historian zehar. Horreen ikurrak eleizan jarri ebazan, patroiak izateak ekartzen eutsiezan pribilegioen seinale.

Joaquín María Enriquezi amaren partetik (Josepha Sarmiento Palafox eta Toledo) jatorkozan Zamudio eta Zugastiko maiorazgoak. Egileak jauntxoaren zuhaitz genealogiko zehatza landu dau liburuan, eta horren leinuen barri argigarriagoa emoten deusku. Izan be, lehen aitatutako maiorazgoez aparte, Enriquezek Gaztelako jaurerri asko jarauntsi ebazan senideengandik: Malpica, Mancera eta Povar markeserriak eta Gondomarreko konderria, esate baterako. 1771. urtean Medina de Riosecoko dukerria lortu eban.

Joaquín María Enriquezek bere armarria osatzen dabene etxean armarriak mihise baten margotu eta Arteagako San Martín eleizako koruan jartzeko agindu eban.

Mihise horretan dagozan leinuen armarriak honeek dira: Toledo, Ribera, Barroso, Sarmiento, Acuña, Pimentel, Sotomayor, Enriquez Zamudio, Zugazti, Guzmán, Requesens, Zuñiga eta Fajardo. Guezuragak bakoitzaren deskribapena egin dau heraldikaren arauak jarraituz. Mihisean armarrien koloreak, esmalteak eta detaileak zehatz margotuta dagoz. Presbitergo aurreko burdinazko hesian zizelkatu ziranek eta patroia aul-



PROFESIONALIZAZIORANTZ BIDE AZKARRA
TXORIERRI
POLITÈCNICA DEPARTAMENTU
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Calle de Mendizábal, 1 • 48940 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 403 40 50 • Fax: 94 403 40 51 • info@txorierri.net • www.txorierri.net

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Dunjabekasuna lortu nahi duzu eta azkar bidean? Pasa eta eragitu gure heziketa zikloak prestakuntza praktikoa, kalifikatzailea eta eragilea. Lan merkatuan sartzeko aukera zabarkin.

HEZIKETA ZIKLOAK	
KIMIKA Ingurumen-Heziketa <i>Gai maila (1.400 ordu)</i> ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA Energia eta kontrol automatikoen sistemak <i>Gai maila (2.000 ordu)</i> Telekomunikazio eta informetika sistemak <i>Gai maila (2.000 ordu)</i>	FABRIKAZIO MEKANIKOA • Mekanizazioa <i>Enfi maila (2.000 ordu)</i> • Proiektu mekanikoen garapena <i>Gai maila (2.000 ordu)</i> • Proiektu mekanikoen garapena <i>Gai maila (2.000 ordu)</i> MERKATARITZA ETA MARKETINA • Merkataritza eta merkalin gestioa <i>Gai maila (1.400 ordu)</i>

BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA





nortasun

“Armarriak zehatz
margotuta dagoz
mihisean. Burdinazko
hesian eta patroia-
ren aulkian dagozanak,
ostera, sinpleagoak dira”

kian dagozanek, oster, era sinpleagoan da-
goz eginda.

Burdinazko hesia egiteko enkargua Zal-
dibarko Juan de Aguirrebeitiari emon eu-
tsan Enriquezek, eta hori 1774. urteko An-
dra Mari egunerako (irailaren 8rako) amai-
tuta egon behar zala esan eutsan. Patroia-
ren aulkia data berekoa eta 1990. urtetik hona
Bilboko Eleiz Museoa dago ikusgai.

Zamudiotorrearen jabetza Zamudio lei-

nuaren ondorengoak izan dabe 1973. urtera
arte. Urte horretan Baileneko dukeak (Juan
Manuel Caverio de Carondelt eta Bally) he-
rriko Mendiguren familiari saldu eutsan; eta
Mendigurentarrek, 1989. urtean, Zamudio
herriari.

Dokumentuen transkripzioak

Liburua bost dokumentuen kopia eta
transkripzioek osatzen dabe: Zamudio-Zu-
gastiko maiorazgoaren jabetzearen atal bat,
Arteagako San Martin eleizako burdinazko
hesia eregiteko jartzen ziran baldintzak,
eleizaren erretaularen ordainketea, Zamu-
dioko jauntxoaren 1876. urtean ebazan jabe-
tzak eta Sanchez del Reyek dorretxeari bu-
ruz 1945an idatzitako poemea.

*Elementos heráldicos en la iglesia de San
Martín de Arteaga de Zamudio* liburua Ama-
goia Guezuragak Noblezia, Heraldika eta
Genealogiaren Mastererako egindako tes-
sinan oinarritutako lana da. Liburua Zamu-
dio liburudendan eta Elkar liburudendan
(Bilbaoko Iparragirre kalean) dago salgai.
www.lekonbarri@yahoo.es helbidean be eskatu
daiteke.



Argazkia: Lourdes Diego

Egilea

Amagoia Guezuraga Bilbao (Za-
mudio, 1967). Geografia eta Histo-
rian lizentziatua da, eta Euskal
Kulturan graduondoa (1995) eta
Noblezia, Heraldika eta Genea-
logian masterra (2005) eginda di-
tu. Geografia, historia, euskarazko
klaseak eta heraldikaren ganeko
tailerra emon ditu Bizkai eta Ara-
bako ikastetxeetan. Era berean,
Ontarioko (Oregon) Euskal Klube-
ko "Sustraiak" proiektuko lankide
da. 1996tik Zamudioko liburuteg-
ian egiten dau behar.

Mihisea, elizako koruan



Hotel Tryp Sondika



Ezkontzak

OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN

Jaun-hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 91 530052 • Fax: (34) 91 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

Bilbok kanposantu berri eta handi bat eraikitzea erabaki zuen XIX. mendearen azken aldera, Begoñakoa txiki gelditu zitzaiolako. Txorierrin lurak erosi, eta Vista Alegre egin zuen. Lezamako burdinbidea ere garai hartakoa da, eta arrazoi beragatik egin zuten: gorpuak eta bisitariak ekartzeko eta, horrela, hilerriari zerbitzua eman ahal izateko.

Kanposantua 1901ean inauguratu zuten. Orduan, inguru hartan zerbitzu berriak sortu beharra etorri zen. Garrantzitsuena: marmola landuko zuten enpresak. Batzuk kanpotik etorri ziren, Galiziatik, Leonetik, Italiatik, Gipuzkoatik... eta bertoko batzuek ere hartu zuten ofizioa. Esaterako, 80ko hamarraldian marmolgintza arloko 16 enpresa izan ziren. Gehienek kanposanturako egiten zuten lan, baina

Marmolgintzaren urrezko urte haiek

Vista Alegre hilerriari Derioko kanposantua esan ohi zaio. Argitu beharra dago, hala ere, izan, Bilboko hilerria dela. Eta Zamudio eta Derioko lurretan daudela hilerria bera eta hari lotutako beste eremu batzuk. Gauzak asko aldatu dira inguru horretan azken urteotan. Garai batean, edonon ikusten ziren marmolgintza tailerrak; 15 baino gehiago izan ziren. Gaur egun, baina, batzuk baino ez dira gelditzen.

Testua eta argazkiak: Bestorrene

Beste garai bateko aztarnak, oraindik ikusgai



batzuek kanporako ere egiten zituzten lanak. Enpresa txikiak ziren, lauzpabost lagunekoak; handienak 10 langile inguru izango zituen.

Hona hemen garai hartako tailer batzuen izenak: Edu Bulunburu, Hermanos Sarasola, Txaldi (aita eta semea), Azkuna, Nikolas Gonzalez, Antonio Madariaga, Lazaro Alvarez, Jose Mari Iñarra, Juan Rey. Pedro Madariaga, Elio Madariaga, Asensio Landeta, Patxi Zallo, Carlos Arevalo "Txato", Goyo Garcia, Luis Zapatero...

Ohituren aldaketa

Azken 20 urteotan, aldaketa handiak izan dira gure gizartean kanposantuei eta hildakoak ehorzteko moduei dagokienez. Ohituren aldaketek eta espaziorik ezak harriaren eta marmolaren beharrezana asko gutxitzea ekarri dute. Alde batetik, gero eta gehiago dira erraustea nahiago dutenak; eta bestetik, panteoi eta sepultu-

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GTNEKOLOGOA

Txorierrin Etorbidea 9, 1. 413
a.amondarain@euskalnet.net

18160-DERIO
Tlfno./Faxa: 94 454 44 98

Bertoko sukaldeak, kalitate uneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

ERAKUTZETA
KALIBRAIA
INSTALAZIOAK

94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierrin Etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

XAKER
Kirol zerbitzuak S.L.

Kirol instalazioen kudeaketa: ustiapena, garbiketa eta mantentzea -
Kirol erakusketak
goi mailako pilota taldeen entrenamenduak -
entrenamenduentzako eta garbikuntzarako kirolak eta kongresuak -
Kirol ekipamendu kudeaketa: klubak, federazioak -
eskolaz kanpoko jarduerak
udalekuak -

Hesenera 4000, 4
48165 Larrabetzu BIZKAIA
944 558 278 / 944 558 143
662 710 632
Faxa: 944 558 278
www.xakerkirola.com

Juan Isidro Zapatero "Txaldi"

"Lan gogorra izan arren, garai onenak ezagutu ditut"

Juan Isidro Zapatero "Txaldi", marmolari jubilatua



Badira urte batzuk jubilatu zela, eta orain dela gutxi ebakuntza egin diote herniatik. Marmolgintzak utzitako gaitzak, beharbada. Marmolarien lana gogorra zela dio, baina urterik onenak

bizi izan zituela, lana denontzat zegoela.

"Aita Txaldi ere gaztea zela hasi zen marmolgintzan, eta neuk ofizioa hartu nuen 60ko urteetan. Ia mendea amaitu arte ibili naiz lanean. Ofizioaren bilakera bizi izan dut; hala ere, ez dut ikusi lan ikusgarririk egitea; haiek lehenago egin ziren. Hargintza egiten genuen hasieran, eta harrizko blokeak lantzen genituen. Zizela, punta-zizela eta mailua erabiltzen ziren horretarako. Geroago, 1975. urtearen inguruan, granittoa merkatura sartu eta harri meheak hasi ginen erabiltzen. Lanak harri-xaflez egiten genituen, rotaflexak erabiliz. Lanak kanposantu askotarako egin ditut, garai hartan lan handia zegoen eta: Gernika, Balmaseda, Sopuerta, Espinosa... Guztioak denetarik egiten genuen, baina egia da batzuk trebeagoak zirela lan batzuetan; hizkiak grabatzen, adibidez. Nire garaiko gehienak jubilatu egin dira, eta marmoldegiak apurka-apurka ixten joan dira".


ra gutxi egiten dira. Hilobietan jartzen den apaingarri bakarra marmolezko plaka izaten da.

Marmoldegiak ixten joan dira apurka-apurka, eta Txorierrin zortzi bat baino ez daude orain. Haietako hiruk edo lauk Txorierriko kanposantuetarako lanak egiten jarraitzen dute, baina gehienek erakuntzara bideratu dute beren jarduna: sukaldeak egiten dituzte, atariak, fatxadak... Beste alde batetik, lanen mekanizazioak asko murriztu du langileen beharri-zana. Materialen jatorriari dagokionez, berriz, ez da aldaketa handirik izan:

-Kare harria: Markinatik zekarten lehen; orain, Debatik.

-Marmola: Italiatik eta Almeriatik zetorren lehen; orain ere bai.

-Granittoa: gehiena Hegoafrikatik dator,



Behar diren zenbakiak sartuz makinak berak egingo du ia dena

baina beste leku batzuetatik ere.

-Bestelako harriak: lan artistikoetarako erabiltzen ziren lehen; gaur egun marmol mota asko dago eraikuntzarako. Munduko leku askotatik dakartzate.

Marmolezko artelanak

Ez da oso aspaldi burdinazko zinta luzeak, area eta ura erabiltzen zirela harritzarrak ebakitzeko. Ostean, zizela eta mailua izan ziren lanabes nagusiak. Tailerrean egin ostean, idiek tatarrez eramaten zituzten piezak jarri behar ziren lekuraino, eta palankak eta poleak erabiliz muntatzen zituzten. Gaur egun ordenagailuz maneiatzen diren makinak bidez ebaki daitezke harritzarrak, eta inskripzioak idatzi. Piezak mugitu eta euren lekuan jartzeko, kamioiak eta lumak erabiltzen dira. Beraz, zerikusirik ez.

Teknikak ez ezik arlo artistikoak ere aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Vista Alegre kanposantuan XX. mendearen hasierako artelan ederrak daude, arkitekto ezagunek sinatuak eta eskultura nabarmenez apainduak. Lucanini italiarra eskultorerik preziatuena izan zen bere garaian. Txabarri, Ibarra, Lezama-Legizamon eta Bizkaiko beste familia aberats batzuen panteoiak erdiko kale nagusian ikus daitezke oraindik. Hala ere, hilerriak lehengo handitasuna galtzen joan da denboraren poderioz, eta lan arruntagoak egin dira azken urteotan. Juan Rey, orain dela gutxi Derion hil dena, marmolgintza artelan gisa landu duen azkenetakoa da, beharbada.

Luis Zapatero, kanposantu ondoko tailerrean, aspaldiko argazki batean



EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra eta
20:00etatik 23:30ra arte
Eleonei eremutako
zabaltzaia: 1 €

Bestarrene: 5, Behesa 46160 DERIO

T: 94 454 55 55

Mascotas Maider

Konpetenak animatuak,
Tzitzurren (le-spainolegia),
Gogorriak,
Elizkizuna

Mangialdi eta Gernikako erretorren txakorrak, 46160 Derio - T: 94 404 21 88

lurrindegia MAMEN mertzeria

Gaiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25



Iran herria kolorez jantzia

Udan Iran ezagutzera abiatu gara lagunak. Izan ere, zer dakigu mendebaldean Iranez? Ezer gutxi; edo hobe esanda, egia den ezer gutxi. Albiste beltzak heltzen zaizkigu beti: erregimen islamiko itxia, arma nuklearrak... Gaiztoenen artean gaiztoenatarikoak omen dira irandarrak. Gezurra badirudi ere, gure herriaz esaten diren topikoak errefusatu arren, beste lurraldeez esaten direnak sinestu egiten ditugu. Komunikabideetan esaten dena Jainkoaren berba balitz bezala.

Iran beltzarekin lotzen dugu maiz: petrolioaren beltza, kabiarraren beltza, emakumezkoek janzten duten *chador* izararen beltza, hango berrien iluntasuna... Guk, topikoen gainetik, bestelako Iran bat ezagutu dugu, kolore askotakoa. Hirurogeita hamar milioi biztanle inguruko izugarri estatu handia da Iran, eta bertan pertsiar etniko jendea nagusi bada ere, badira gutxiengo etniko nabarmenak: kurduak, azerbaijandarrak, turkmengoak, balutxiak eta abar. Bakoitzak bere hizkuntza eta kultura ditu, baita janzkera ere.

Janzkera Irango ezaugarri berezietarikoa da. Beste herrialde musulmanetan ez bezala, Iranen derrigorrezkoa da "janzkera

islamikoa" errespetatzea. Emakumezkoek, bertakoek zein atzeritarrek, zapia eraman behar dute burua estaltzeko, eta gizonezkoek debekatuta dute tirantedun kamisetak edo belaunetik gorako prakak janztea. Emakumezko askok zapia edo *chador-a* eramateko aginduekin bat egiten dute, baina beste asko ere ez daude ados zapiaren erabilera inposatuarekin. Horrela, pikareska ugari darabilte emakumezko arrerakoienei: zapia ahal duten bezain atzera jartzen dute, ilea eta orrazkera modernoak erakutsiz aurretik. Kolore bizietako zapiak ere badarabiltzate; eta makillajea, gehienek.

Sexu berdintasunik ez dago Iranen, bai-

na mendebaldean uste dugunaren kontra, Irango emakumeak gizartearen eragile aktiboak dira: unibertsitateko ikasleen %65 inguru emakumezkoak dira, gidatzen edo beharrean ere ikus ditzakezu, banketxeetan, telebistan, medikuntzan edo irakasle, beste lanbide batzuen artean.

Pribilejioa atzeritarrarentzat

Beste alde batetik, Iran oso lurralde merkea, modernoa eta ziurra da, nor bere kabuz bidaiatzeko. Gu trenez eta autobus publikoetan mugitu gara, arazorik gabe. Komunikabideek helarazten duten irudi desitxuratuaren ondorioz, turismo gutxi dago eta lurraldeaz ia bakarrik disfrutatzea pribilejioa da atzeritarrarentzat. Izugarri toki politak gordetzen ditu bere baitan. Ezagunenak Persepolis eta Isfahan dira, beharbada. Lehen a.K. V. mende eta K.o. IV. mendearen bitartean akemenidar zibilizazioaren erdigunea izan zen hiri historikoa da. Bertako eraikin eta inskripzioak ikustea esperientzia zoragarria da, eta imajinazioak mendeetan atzera eramaten zaitu nahigabe, haitzetan horrelako irudiak eta hilerriak nola egin zitezkeen zeure buruari halabeharrez galdetzen diozunean.

Eta nola deskribatu Isfahan? Iman Jomeini plaza erraldoia da hiriko bihotza, inoiz ikusi dugun politena. Bertan Imanaren Mezquita, Sheikh Lotfollah mezquita eta Ali Qapu jauregiak daude, zein baino zein ikusgarriagoak. Baina Isfahanera egindako bisita ez da osoa izango, Zayandeh ibaian



Gizon kurdua lanean



“Emakumeak gizartearen eragile aktiboak dira: unibertsitateko ikasleen %65 emakumezkoak dira eta hainbat beharretan dabilta”

“Oasi-hiria da, irla, desertua, mendia... kolore askotakoa”

zehir dauden eta mendeetako historia duten zubietatik ez bazabiltza eta euren azpian dauden te-etxeetan aterpe hartzen ez baduzu.

Teheran hiriburuko kaosak zoratu egin-go zaitu. Hamabi milioi biztanle ez dira edonon sartzen. 1979. urteko iraultzaren ondorioek bizi-bizikiak diraute hiriburuko bitokitan, batik bat Estatu Batuetako enbaxada ohian, gaur egun Irango armadaren egoitza eta *yankee*-en aurkako pintadez hornituta dagoen horretan, eta, bestalde, Jomeini Imanaren Mausoleoan, oraindik eraikitzen dabilzan monumentu erraldoian, Jomeiniren gorpuzkinak gordetzen dituen. Bertara sartzea, jendea otoitz egiten ikustea eta giroa ikuskatzea esperientzia biziki interesgarriak dira.

Altxorrik preziatuena: jendea

Baina Iran Jazd oasi-hiria ere bada, dena adobez eraikia eta Zoroastrok sortu zuen erlijioaren jarraitzaileen, suaren mirasleen, peleginazio gune nagusia, bertan dagoelako V. mendetik amatatu gabe irau-



Goian: Kandovan hiria; behean: EEBBetako enbaxada ohian dagozan pintada



ten duen sugar sakratua. Iran Bandar-e Abbas eta Hormoz irla ere bada, Pertsiar Golkoan kokatua, desertuaz inguratutik, arabiar gutxiengoaren kokaleku eta non bertako emakumeek koloretako maskarak erabiltzen dituzten ezaugarri estetiko gisa.

Dena dela, Iran ez da soilik desertua. Oso zonalde menditsuak ditu ipar eta

erdialdean. Hor topatuko duzu Kurdistan-go “Irango” aldea, non 8 milioi kurdu bizi diren, kurderaz mintzo direnak. Turkian edo Sirian bezala, kurduak han ere erreprezioaren biktima jarraitzen dute izaten, euren eskubide politikoen alde borrokan dirautelako. Baina euren hiriburua den Sanandaj-en, Marivan-en edo Howraman-en atzerriarra eskuzabal hartzen dute.

Bizipen asko emango dizkizu Iranek, baina agian gomutagarriena udan parke batera zoazenean, egun pasa bertan dauden familiak zu agurtzera eta eurekin tea hartzera edo jatera gonbidatzean izago duzu. Berehala hasten dira barrezka eta berbetan kanpotarrarekin. Iran estatuko altxorrik preziatuena horixe delako: bertako jendea, sekulan ezagutu ditugun herririk abegikorrenak bizi direlako munduko puska honetan.

Testua: Igor Urrutikoetxea
Argazkiak: Fernando Bilbao eta I.U.

MODA INFANTIL
Tximeleta

Garmilokatu Arbelo, 8
Telefonoa: 91 451 11 35
Faxa: 94 454 38 26

18100 ULKIO
Bizkaia

pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO

Isorierri esorbidea IS
180700 sarraila
birkala efica: 999 533 375

www.proaudio.es
javier@proaudio.es

159 €

ZAINDUZ
DUPONTE ALBAÑAL

- Odontologia orokorra
- Ortodontologia (umeak eta helduek)
- Periodontologia
- Harkonde faktoreetan oinarritutako planak
- Hortik eslektu (zuriaketa, piercing...)
- Hortik jartzea eta berretzea

Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo

15. eta 16. kaleak 7. eta 8. (Zentroa Pellok 40)
Tfno./Fax: 94 454 01 01 - e-mail: elopez@zainduz.es - 48100 SOROKA (Bizkaia)

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitz Trippya, Derlora

Bilaka Kalea Beja
DERIO

Consulting Sondika S.L.
9451 4888

Babin Askolizaga
Argazkigintza
Allianz

609 475 746

Tlf: 94 4531807
Fax: 94 4536027

Mixine, 6. Webea
48100 Sondika-Bizkaia

NARATEGIA * URDAITEGIA
VICTOR
ELABORACION ARTESANA

Okela geuk produzitzen dugu; egiten ditugu odolosteak, borroak, txistorrak, solomak...

Plater aurrekoizinatua

Doki Kalea n°4 • Tlf: 94 453 16 17
48100 SOROKA (BIZKAI)

Egutegiko hitzordurik garrantzits



Abuztuaren azken domekan dortsalak, mendiko botak eta makilak nagusi izan ziran Lezaman, besteak beste. Izan be, Txorierritik eta hainbat herritatik etorritako 600 lagun inguru batu ziran herrian '2008 Lezamako mugetatik mendi mar-txa/lasterketan' parte hartzeko. Iaz baino 250 bat lasterkari gehiago izan ziran.

Aurten probaren bigarren edizinoa bete da eta, zifrei erreparatuta, oso denbora laburrean mendiko egutegiko hitzordurik garrantzitsuenetarikoa bihurtu dala esan daiteke. Guztiak pozik: korrikalariak, ibiltariak, umeak, gazteak, nagusiak, txakurrak... Baina, batez be, antolatzaileak. "Lasterketa finkatu egin da eta parte-har-

tze hain haundia izatea kalitatezko ekintza dan seinalea da".

Antolatze beharretan 60 lagun ibili dira guztira; gitxi, parte-hartzaileen kopurua kontuan hartzen bada. "Gatxa izan dogu momentu batzuetan guztiei arreta emotea. Hurrengo edizinoei begira zuzendu behar dogun arazoa da".

Beste alde batetik, aurtengo edizinoaren antolakuntzan aurrekoan baino alkarte eta kirol talde gehiagok hartu dabe parte, "eta hori be poztekoa da".

Era berean, Udaletik laguntza izan da-be antolatzaileek.

Argazkiak: Nextor Carcoba



BAR TXIKI

EGUNEKO MENUAK ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehenakari: Mirasola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
Telefonoa: 94 452 04 66

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA

ESPEZIALITATEA: TXAPA ETA PINTURA

CARRROCERIAS **TXORIERRI**

txorierri.com

TXAPA ETA LABE PINTURA

Torrelagotti Pol. Vial sar C 10, Nave BS 1 48160 Zamudio BIZKAIA
T/Fax: 94 450 29 03

uenetarikoa



Parte-hartzaileen argazkiak

Hogeita lau kilometroko ibilbidea. Oinez; korrika. Lainotuta argitu; eguzkia urten. Beroa, izerdia, nekea, gogoa, ilusioa, ahalegina... Parte-hartzaile guztiek amaitu eben martxa/lasterketea; bakotzak bere erritmora. Eta aha leginen artean, argazkiak ateratzeko unea be topatu eben. Hemen dozuezanak Kepa 'Basurde', Pablo Martinez 'Mortxe' eta Enrique Hurtadok agindu deuskuetz.

Argazki gehiago [www. aikor.com](http://www.aikor.com) webgunean



Bizitarrak (Leizola): 94 452 14 49
 Patxi S.KOOP. pol. - Bizitarrak 4
 48170 ZAMUDIO - Bizitarrak
 ☎+ fax: 94 452 14 49
patxi@skoop.com
www.patxi.skoop.com



BAR RAFI

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael García Tejero

Olar Kalea, 5 1º 44 405 08 08
 48170 ZAMUDIO (Bizitarrak) Mutila: 607 406 613

BIZITARRIAK - TRILORI-DENDA

Ruben

Leizola Leizola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
 Zamudio (Bizitarrak)

“Pertsona nagusiek be integratu behar dabe herrian”

Zahar egoitzea Zamudiok aspalditik izandako beharrezana eta asmoa da, ezta?

Bai. Orain arte ez dogu halako zerbitzurik izan herrian, eta gure nagusiek inguruko beste herri batzuetara joan behar eben. Egoitzea bultzatu dogu, pertsona nagusiek be herrian integratu behar dabela pentsatzen dogulako.

Nori emongo jako zerbitzua?

Zahar egoitzea uztailean zabaldu zan eta gaur egun 12 lagun dagoz bertan. Batez be zamudioztarrentzako zerbitzua da, baina Txorierriko beste herrietako pertsona nagusi batzuk be badagoz. Azken baten, beharrezan ez dira toki batekoak, inguru oso-koak baino. Eguneko zentroan dagozan

Zahar egoitzea oso proiektu garrantzitsua da herriarentzat. Zamudioztarrei ez eze inguruko herrietakoei be emongo deutse zerbitzua, eta lanpostuak sortuko ditu. Sorkunde Aiarza alkateagaz izan gara berbetan.

Lezama eta Larrabetzuko lagun batzuk, esate baterako, egunero joan behar eben Basauriko zentroraino. Eta orain oso hurbil dagoz etxetik. Erosoagoa da bai eurentzat bai familientzat.

Erabat pozten zaituen proiektua da, begibistan dago.

Aurrera ateraten diran proiektu guztiek pozten gaitue; baina askoz poz haundiagoa har-

tzen dogu proiektuok pertsonen zuzenduta dagozanean. Nagusiek geuretzat egin dabe behar, eta orain geuri dagokigu behar daben bezala zaintzea. Bizi-kalitatea hobetu behar deutsegu; bai euren eta bai familiarena be. Gainera, inportantea da eurentzat herrian egotea, paseatzera urteteko moduan bada- goz, adibidez, bertoko jendeagaz egoteko aukerea dabelako.

Egoitzeak 160 lagunentzako tokia dau



Uztailean zabaldu baeben be, Truiuondo zahar egoitzea irailean inaugurau dabe ofizialki. Inaugurazinoan Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak eta Juan Maria Aburto Gizarte Ekintzako foru diputatuak hartu eben parte, Sorkunde Aiarza Zamudioko alkateagaz eta herritarrek batera.

Egoitzako beharrak orain urte bi hasi ziran. Udalak 6.970 metro koadroko orubea laga eutsan Foru Aldundiari Torrelarragoiti industrialdean, zahar egoitzea han egiteko. Beharretan 9,1 milioi euroko inbertsinoa egin da, eta Aldundiak Naguspea SL enpresari emon deutso egoitzearen kudeaketa 38 urterako.

Truiuondo zahar egoitzan 120 zahar hartzeko tokia dago. Toki horietatik 24 pribatuak dira eta besteak foralak. Eguneko zentroa be badago egoitzan, eta 40 lagunentzako tokia dago han. Plaza guztiak foralak dira kasu horretan, eta horrek esan gura dau Foru Aldundiaren mende dagozala eta, ondorioz, subentzionatuta dagozala.

Eraikinak 7.010 metro koadro eta lau solairu ditu. Erdisotoan sarbiderako gunea dago eta beheko solairuan, besteak beste, instalazio honek jarri dabez: harrera-lekua, guztientzako eremua, bulegoak, egongelea, gimnasioa, jantokia, kafetegia...



Solairu horretan eguneko zentroa be badago, psikogeriatiko eta integrazio gelak dituana. Logelak lehen eta bigarren solairuetan dagoz, eta bertan jantokia, okupaziozko terapia egiteko gelea, bisitentzako gelea, erizaintzako postua eta botikina be atondu dabez.

Beste alde batetik, ohiko zerbitzuez gainera, egoitzeak honek be eskaintzen deutseez nagusiei: ortopedia, podologia, prothesiak, pelukeria...



Ganera, egoitzeak lanpostuak be ekarriko deusaz herriari...

Beharginak aukeratzeko prozesua Behargintzaren bidez egin da, eta prozesu horretan lehenetsuna emon jake zamudioztarrei

lehenengo, eta txorierritarrei, gero. Oso perfil espezifikoa behar daben lanpostuetatik aparte, geriatriako laguntzaile ikastaroa antolatu da. Ikastaroan parte hartu dabenek praktikak be egin dabez zentro batzuetan.

Euskara ikastaroa emon da, zerbitzu elebiduna eskaini behar dauela pentsetan dogulako. Kurtsoetara hurbildu edo beste lanpostuen ganeko informazioa eskatu daben gehienak emakumezkoak izan dira. Hori kontuan hartzeko datua da, Zamudion ezkutuko beharretan dabilzan emakume kopuru inportantea baitago, eta lanpostua eskuratzeak lagunduko deutse erretreta-pentsioari begira. Zahar egoitzan dagozan lagunen kopurua hazi heinean, jenteari deitzen joango da, sortzen diran beharrezko erantzuna emoteko. Plaza guztiak beteten diranean, geriatriako 43 laguntzaile izango dira beharrezkoak. **Zamudion badago alkarte bat, Alkartasun taldea, gaixoei eta egoitzetan dagozan zaharrei bisitak egiten deuteszana. Behar hori herriko zahar egoitzara be zabalduko dabe?**

Bai, eta hainbat bisita egin dabez dagoeneko, ganera. Egoitzako zuzendariak hasiera-hasieratik hartu eban pozik iniziatiba hori. Oso behar garrantzitsua da, lehen aitatu dogun integrazino prozesu horretan gure nagusiek ezin dabelako loturea galdu herriagaz.



Enrique Otegi eta Angel Mourelle, Jehovaharen lekukoak

“Bibliak diona betiko da”

Txirrinak jo; Jehovaharen lekuko bat dago atarian. Berarekin hitz egin eta gero, Bibliak esaten duena eguneroko bizitzan islatzen dela konturatzen zara. Normalean horrela batzen dituzte “anaiak” fede kristau horretan, eta Enrique Otegi eta Angel Mourelle ez dira salbuespena. Eurak Txorierrin dauden 40 Jehovaharen lekukoetakoak dira. Aurreiritziak gaindituz, AIKOR! aldizkaria hurbildu zaie.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Aspaldian zaudete Derion, ezta?

Bai, duela 34 urtetik hona, hain zuzen ere. Guztira, 40 lagun biltzen gara astean hiru aldiz. Batzarretan Biblia irakurtzen dugu eta horrek diona erabiltzen saiatzen gara eguneroko bizitzan sortzen diren egoeretan. Zapatuetan baten batek hitzaldiren bat botatzen du. Ez dugu apaizik eta txandaka hartzen dugu parte ospakizunean. Sondika eta Deriotik etortzen gara, batez ere.

Nolako antolamendua du elizak?

Guztiok gara berdinak eta “anaiak” esaten diogu elkarri. Salbuespenak “nagusiak” dira; maila hori ez du adinak ekartzen, baizik eta Biblia primeran ezagutzeak. Aholkulari jarduten dute. Dena dela, aginpidea duen bakarra Biblia da. Eta “nagusiek” Bibliak esaten duena baino ez dute esango.

Zuen ezaugarri ezagunetako bat etxe etxe Ebanjelioaren berri ematea da. Zergatik egiten duzue?

Guk Kristok esandakoari jarraitzen diogu. Berak esaten zuen Ebanjelioa jakinarazi behar zela. Katolikoek kanpaiak jotzen dituzte jendea hurbil dadin. Gure ustez, oster, etxez etxe joan beharra dago jendearen bila, hasierako kristauak egiten

zuten moduan. Guretzat erronka da. Alde batetik, oso gogorra da, zure denbora librean kaletik ibili behar delako, eta batzuetan jasotzen ditugun erantzunak desatseginak direlako. Hala ere, goxoa ere bada, batzuetan hitz egiteko norbait aurkitzen dugulako.

Zelan tratatzen zaituztete txorierritarrek?

Askok aurreiritziak dituzte hedabideen eragina dela-eta, baina Txorierrin primeran onartzen gaituzte. Hiri handietan, berriz, ezberdina da batzuetan. Dena dela gizartearen parte sentitzen gara, baina uste dugu helburu ezberdinak ditugula. Duela 25 urte edo, zailagoa zen. Gainera, gu gero eta gehiago gara. Estatuko biztanleen artean jende gehien biltzen duen hirugarren erlijioari jarraitzen diogu: 150.000 gara Estatuan, eta guztiok aktiboak. Beraz, Jehovaharen Lekukoen 150.000 apaiz garela esan daiteke.

Kristauak zarete, baina zerk bereizten zaituzte?

Ezberdintasun asko daude eta zaila da guztiak esatea. Hasiera batean, Eliza katolikoak jaungoiko paganoen adorazioaren aztarnak egokitu zituen, ahalik eta jende gehien erakartzeko. Greziarren eraginez, esaterako, katoli-

Zaintzeko dorrea

Charles Taze Russellek Jehovaharen lekukoen eliza sortu zuen Estatu Batuetan 1875ean. Gaur egun, zazpi milioi lekuko daude 236 herrialdetan. Kristauak izan arren, sinesmen ezberdin batzuk dituzte lekukoek: ez dute umerik bataiatzen; elizetan ez dute gurutzerik, ezta irudirik ere; ez dute parte hartzen gatazketan edo politikan; eta odol-transfusiorik ez dute onartzen, besteak beste.

Egoitza nagusia New Yorken dute. Bertan Watchtower (zaintzeko dorrea) elkarte dago, hau da, euren erakunde administratiboa. Horrek antolatze lanak egiten ditu. Izan ere, Jehovaharen lekukuek zenbait argitalpen kalera-tzen dituzte. “Adituak daude elkartean; ez Jaungoikoaren ordezkariarik, Vaticanon gertatzen den moduan”, azaldu du Angelek.

“Askok aurreiritziak dituzte hedabideen eragina dela-eta, baina Txorierrin primeran tratatzen gaituzte”

koek uste dute arima hilezkorra dela. Eta gu ez gaude ados. Gure ustez, Biblia da Jaungoikoaren hitza, hau da, egia. Eta bide horretatik ez doanarekin ez gatoz bat. Sinesmenei dagokienez, ez dugu sinesten Hirutasun Santuan: gure iritziz, Jaungoikoa bakarra da. Era berean, Amabirjina ez dugu adoratzeko; uste dugu Kristo maisua dela baina ez Jaungoikoa, Bere semea baizik...

Gainera, ez dituzue Gabonak ospatzen...

Ez bazkaririk, ez oparirik, ez ezer. Inork ez daki ziur Kristo noiz jaio zen. Erromatarrek Saturnoren jaiak ospatzen zituzten, eta lehen esan dugun moduan, kristautat-

sunean tradizioaren sinesmenak ego-
kitu egin ziren, erlijio zabaltzeko eta
herritarrak erakartzeko. Gabonak jai
paganoak dira, gure ustez. Hala ere,
azken afaria ospatzen dugu *nissanaren*
14an, egutegi judutarren arabera.
Aste Santuan izaten da gutxi gorabe-
hera, eta edozein egunetan izan daite-
ke. Batzen gara eta hitzaldi berezi bat
botatzen da.

**Lekukoei buruz aritzean gehien aipa-
tzen den kontua odol transfusiorik ez
onartzea da. Zergatik egiten duzue?**

Bibliak odola bizitza bezalakoa dela
adierazten duelako. Baina norberak
erabaki behar du zer egin. Horregatik
ez dugu anairik txokoratuko. Dena
dela, transfusioak ez dira uste bezain
beharrezkoak. Medikuentzat, askotan,
erarik errazena da tratatzeko. Gaur
egun arazorik ez dugu normalean,
medikuekin odolrik ez erabiltzeko pro-
tokolo asko sinatuta baititugu.

Guk ez dugu hil nahi, argi dago, eta
tratamenduen bila gaude. Hedabideek

“Bibliarekin literalegiak
garela leporatzen
gaituzte; eta literalak
bagara, baina ez hitzekin,
ideiekin baizik”

esaten dute fanatikoak garela. Baina ez
da egia, osasuna primeran zaintzen
dugu, Jaungoikoak gorputza gure ten-
plua dela diolako. Eta ariketa fisikoa
egiten dugu, osasuntsu jaten dugu....
Biblian oinarritzen dituzue sinesme-
nak, ezta? Liburua duela milaka urte
idatzi zen, baina aldaketa asko gerta-
tu dira harrezkero... Oraindik balioa
du?

Duela 2.000 urte ez zegoen ordenagai-
lurik eta Bibliak ez du horren ingu-
ruan hitz egiten, ezta industria edo
ekonomiari buruz ere. Bibliak, aldiz,
moral-kontuak edo Jaungoikoarekin
izaten diren harremanak jorratzen di-
tu, besteak beste. Eta duela 2.000 urte
zeuden beharrak eta gaur egun daude-
nak berberak dira; hau da, guztiok lan
on bat izan, eta osasuntsu eta familia-
rekin pozik bizi nahi dugu. Bibliak dio
elkar errespetatu behar dugula, berdin
dio zein egoeratan. Bibliak botatzen
dituen oinarriak indarrean zeuden le-
hen, gaur egun ere badaude indarrean,
eta beti egongo dira. Guri leporatzen
digute Biblia literalkiegi ulertzen du-
gula. Eta literalak izan bagara, baina
ez hitzekin, ideiekin baizik.

**GAMINIZ
JATETXEA**



Tel/Fax: 944.317.025
email: gaminiz@gaminiz.com

Iboizabol 212. parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 4°31'13" W
www.gaminiz.com

OPTIKA IKUSIAN

Dietaurreko graduatuenak
Kontaktu lentak
Eguzkitako hezmerrekoak
Tahenengo markak

Oitz kalea, 3. floor. 94 452 28 18 ZAMUDIO

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Osasun-zentroa & Hortz-ostea
HORTZ-PLANTEAK - OSTODONTZIA ESTETIKOA
(IMPLANTAZIOAK)

Dr. Idoia Zubietza, 31. 1. sol. 48011 BILBO • Tel/Fax: 94 441 6177
Uztar place, 1 • 48170 ZAMUDIO • Tel/Fax: 94 452 1370

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Bilbo: Salmeru plaza, 5 - Enkaleiduna Ondina, 7. Solbuay, 1. Dorio. -40011 BILBO
Tel/Fax: 94 452 80 10 - Fax: 94 452 82 12
Zamudioko Futboldegiak: Telefonak 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74



**Garmendia
ardoak**

Pirou pol, P-3B
ZAMUDIOKO
Tel/Fax: 94 452 00 49

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastekoak
Aisialdirako landak - Apeslari zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonak:
IBON - 659 90 75 88

Serviziak: 2000, 87 • ZAMUDIO • PIZAM

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**



Bizkaiko Txakolina
Txakolina bat da txakolina

Argitatu
Bikot
in Tx
akolina
in txakolina

Geltitza 2000, 37
(BILBO)
94 455 61 46

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Martín sune, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Fax: (94) 452 11 46



**GOIKO
TABERNA**

Taberna-jatetxea
Emisidant

Mero berazale-antzerkariak • Egunerako menua eta izartea
Bere erakundeak • Jaunak eta etxekoak
Bere antzerkariak • Jantoki-antzerkariak

K.º Garetza, 1 • Tfn. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia



**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK • ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, knadermaketa, plastifikatzaiek,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 • Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)

Sabin Ugarte

“Ezin naiz musikarik gabe bizi”

Sabin Ugarte Dobaran, Erandio Goikoan jaio zen orain dela... urte batzuk, baina aspalditik bizi da Sondikan. Bere aisialdian familia eta lagunekin egotea gustatzen zaio, baina hori baino oraindik gehiago musika mundua. Esaldi honekin zabaldu digu elkarrizketa: “...musika ezinbestekoa da nire bizi-tzan, entzuteko eta jotzeko”.

Testua: Pospolin

Argi dago musikazale amorratua zarela, baina zer egiten duzu zuk musika arloan? Zer entzuten duzu, zer jotzen duzu? Taberna Ibiltariako partaidea naiz lau urterik hona eta perkusioa jotzen dut. Hortik aparte, inguruan dauden rock kontzertuetara joaten ahalegintzen naiz urte barruan, Bilbora, Gasteiza... Interneten musikaren inguruko foro batean ere bagaude Asier Bidaurrezaga sondikarra eta biok.

“Ez ditut ikusten
Sondikako gazteak ezer
egiten musika arloan.
Tabernetan ere gero eta
ohitura gutxiago
dago kantatzeko”

Noiztik eta nondik datorkizu musika zaletasuna?

Txiki-txikitatik. Niri betidanik gustatu izan zait zelan edo halan perkusioa eta bateria jotzea. Eskola garaian pupitre gainean eskuekin joz edo amari tuperwareak “ostuz” ibiltzen nintzen. Gero, 17 urterekin edo, Derioko Seminarioan sortu zen Zakil taldearekin hasi ginen berbenetan zehar. Aurrerago, 90eko hamarkadan Alproja rock taldearekin ibili nintzen eta orain Taberna Ibiltariarekin.

Zein da, zure ustez, musikaren “osasuna” Sondika aldean?

Badaude abesbatzak, akordeoi taldeak... Hortik aparte, ez ditut ikusten gazteak

ezer egiten arlo honetan. Tabernetan ere gero eta ohitura gutxiago dago kantatzeko (herri guztietan), baina, hala ere, koadrilaren bat badabil noizbehinka poteatzen eta kantatzen. Taberna Ibiltariak ere hor dauka bere erronka.

Zeintzuk dira zure etorkizunerako proiektuak musika munduan?


Zazpi urte dira Taberna Ibiltaria sortu dela, euskal kantutegi popularra tabernetara eramateko asmoz. Letrak banatzen ditugu eta denok elkarrekin, jendeak eta geuk, abestu egiten dugu, eta horretan jarraitzeko asmoa dugu. Orain dela urtebete Dublín egon ginen kantatzen kalerik kale, pubez pub. Etorkizunerako helburu argi bat daukagu, bi urte barru Boisera joatea, munduko euskal etxeak han biltzen baitira eta bertan egon nahi dugu kantatzen.

Hurrengo baterako eta sakonago ezagutzeko utzi behar-ko ditugu musika

talde honen “ibilteak”.

Interesgarria eta aberatsa, benetan, egiten dutena!





BTEK, bizi teknologia

Teknologiaz inguratuta bizi gara. Izan be, gizakiaren ezaugarrienetarikoa bat hauxe da: tresnak sortu, erabili eta ingurunea bere gura eta beharretara egokitzea (Wikipediaren definizioa). Eta urteetan erabileraren horretan iraultza ezbardinak egon badira be, orain jasaten gabilzana azkar gertatzen ari da benetan, ia gureganatzeko astirik emon barik.

Irratitik interneten bidezko telebistara pasatu gara oso urte gitxitan; 1943. urteko 30 tonako ENIAC ordenagailutik askoz be azkarragoak diran gaur egungo mikroordenagailuetara; herrietara heldu ziran lehenengo telefonoetatik argazkiak, bideoak, musika eta jokoak dabezan gaur egungo

sakelako telefonoetara.

BTEK DBHko ikasleei bereziki zuzenduta egongo dan zentroa da eta 2009-2010 ikasturtean zabalduko ditu ateak Zamu-dioko Parke Teknologikoan. Punta-punta-ko teknologien erakusketa ikusi barik, teknologia bizitzeko aukerea izango dabe bisitariak bertan. Hori bost aretotan zehar egingo dabe: ‘Berrikuntza Kioskoa’, ‘Sarea eta Mundu Digitala’, ‘Planetaren Zaintza Etiket Hasita’, ‘Ziztu Bizian! Badira Beste Munduak Gure Inguruan, eta ‘L@btek’.

Leloa baino gehiago


'BTEK bizi teknologia' lelo bat baino gehiago da. Teknologia benetan bizi behar

“Punta-puntako teknologien erakusketa ikusi barik, teknologia bizitzeko aukerea izango dabe bisitariek BTEK zentroan”

dala sinesten dogulako. Teknologiak eroso-ago egiten deusku bizitza, baina arriskuak be baditu. Eta teknologia erabili ez eze eza-gutu eta haren ganeko hausnarketa egitea be ezinbestekoa da, arrisku horreei aurre egiteko.

Proiektu honetan jatorri eta ibilbide ezbardinetako jenteak hartzen dau parte: bigarren hezkuntza zein unibertsitateko teknologia irakasleek, zientzialariek, teknikariek, diseinatzaileek, multimedia, joko eta IKT-n adituek... Guztien ahaleginari esker murgilduko dira ikasleak teknologiar munduan, hori dalako teknologiak ulertzeko eta zintzo erabilteko erarik egokiena. Baina ‘murgildu’ berbeak ez dau esan gura teknologia geuk emongo deutesgunik; baliabideak eskuratu, topatu, manipulatatu, tripak atera eta sartu, eztabaidatu... eurek egin beharko dabez. Behartu beharrean, hausnarketea sortuz.

Testua: Xabier Díaz, BTEk-eko zuzendaria



ZUTARRI S.L.

HARGINTZA, OROKORREAN.

ETIKETAKO AURRERAKOEN HARRI LAGUNDEKO ENDOGAKOEN LAGUN ALDI
BERRITATZA, ITS. ARREUNA, HOLZUNA,
ERTEZ HAZTE APURKARREN TXARPA, ETX...

Gernielte 125 ziko orpila. 48196- Lezama - Bizkaia

TEL. 652.724.182 - Fax. 944.354.275

zutarri@webos.com

On egin karfiatanga

Musking-musking inberraketa, bertuturaketa,
gizakia karfiatanga eta gogorak. Ahalak eta eraketa
karfiatanga ezinagor.

et dera eta inberraketa eta karfiatanga

Amaketa eta karfiatanga. 94 455 63 94


S.A.T. LEGY
KÖNYV- ÉS LAPKIADÓ
LEZAMA
Goltoltza Ártusa, 56
4019G LÉZAMA - Birkás
Tél.: 94 456 61 98
Fax: 94 455 64 17

Roberto Fernandez, mikologoa

“Hondartzan be topa daitekez perretxikoak”



Robertori aitarengandik jatorkio perretxikoetarako zaletasuna. Muskizko irakasleak hainbat artikuluzientifiko idatzi ditu nazioarteko aldizkarietan, eta *Gara* egunkariak kale-ratutako “Perretxiko eta onddoen” gidaliburua egokitu dau. Era berean, Urdaibaiko perretxikoen gaineko liburua argitaratu dau beste hiru egilegaz batera. Lezamako Kultura Aretoa baso bihurtu dogu ordu batzuetan.

Testua: Zorritzetan (U.U.)

Batzuek etxeko erremedioak erabiltzen dabez; halan be, zeri erreparatu behar deusagu perretxikotan gabilzanean?

Perretxikoaren ezaugarri guztiak ezagutu behar dira, eta, ahal bada, izena be bai. Zilarrezko txanponaren formularen arabera, adibidez, txanpona eta perretxikoa alkarregaz egosi ostean, txanpona balzten bada, perretxikoa ez dala jangarria esan gura dau. Baina ez da egia. Zilarra balzten daben asko jan daitekez.

Eta gitxienezko ekipajea eroan behar dogu?
Otzara eta labana. Perretxikoak plastikozko poltsan sartzen badoguz, egosi edo usteldu egiten dira, eta batzuek, ganera, berez ez dabezan sustantzi pozoitsuak sortzen dabez. Saskian sartuz gero, hori saihestu ez eze perretxikoen esporak lurretik zabaltzen be lagunduko dogu. Beste alde batetik, labana erabili behar da perretxikoa mozteko orduan, lurrari ahalik eta kalte gitxien egiteko.

Autonomia Erkidego batzuek neurriak ezarri dabez –kuotak, ordutegiak...- perretxikoen batze masiboari aurre egiteko...

Kuotak ipini baino, laguneko hartu ahal diran ale kopurua zehaztu beharko dala uste dot. Dirua ordainduta gura beste ale hartu ahal bada, ez dogu aurrerapausorik emongo. Era berean, espezie batzuk desagertzeko arriskuan badagoz, horreek be zaindu beharko dira euren batzea gitxituz edo galarazoz.

Zenbat espezie doguz Euskal Herrian?

Milaka. Estimatuena gorringoa eta onddo beltza dira, besteak beste. Eta pozoitsuak diranen artean amanita faloida aipa daikegu, esate baterako. Espezie guztiek betebeharrantzitsua dabe mendian, jangarriak ez diranek be bai.

“Astaputza edozein neurritakoa izan daiteke eta zortzi kilo pisatu daike”

Udazkena urtarorik oparoena da perretxikoei jagokenez, baina ganontzeko urtarotan be topa daitekez, ezta?

Bai, udaberriko ziza, adibidez, oso ezaguna da. Eta urtean zehar be hainbat espezie topa daikeguz. Horreek oso garrantzitsuak dira mikologoentzat. Asko ikasten dogu.

Nondik zabilz zu perretxikotan?

Leku askotatik; basoetatik gehienbat. Baina beste ekosistema batzuetatik be bai: landak eta hondartzak. Bai, hondartzak. Pentsa daitekeenaren kontra, perretxikoak-eta dunen artean, hare artean be sortzen dira. Uretan izan ezean, edozein tokitatik nabil ni perretxikotan.

Zein da hartu duzun alerik handiena?

Ezin deusuet zehatz-mehatz esan, baina batu dodazan haundienen artean espezie berdinak egon dira beti: onddo baltza, esaterako. Hori 30 cm-ko neurria izatera heldu daiteke. Haundiena izaten dana, eta urtero oihartzuna duena komunikabideetan, astaputza da. Hori edozein neurritakoa izan daiteke, eta zortzi kilo pisatu daike.

Zelango ezaugarriak dabez elikagai moduan?

Proteinak-eta izan arren, ura dabe gehienbat, eta ez dira oso alimantu aberatsak. Beste plater batzuen osagarriak dirala esango neuke; eta ez dira inoiz gure dietaren oinarria izan behar.

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

Erandio Goikoako elizaren ondoan, 1940. urte inguruan



Agertzen diran lagun guztiak ez doguz ezagutzen. Ea izen gehiago jakitea lortzen dogun, edo argazkia noiz atara daben. Zelan?
944523447 telefono zenbakira deituz
aikortxori@aikor.com helbidera idatziz edo
www.aikor.com > txokoak > Antxinako argazkiak
atalean erantzuna utziz.

1 Carmen Uriarte Tellabarri 2 Begoña Elexpuru Elexpune 3 Milagros Aurrekotxea
4 Josefina Zarraga Tiotxune 5 Eustasia 7 Miren Uriarte Torrotxe 8 Pilar Villa
9 Lartategi Pipatune 11 Garbiñe Zarraga Kurrullu 12 Tere Argiarro Pipatune
13 Begoña Lekunberri 14 Mari Carmen Bidea Aresti 15 Tere Aresti 16 Mari
Carmen Gaminde Kausetetxe 18 Mari Errota 20 Tere Isasi 21 Pilar Gaminde
Kausetetxe 22 Felisa Gaminde Kausetetxe 23 Mari Trabudua Tellabarri 24 Ana Mari
Otsone 25 Mari Carmen Zarraga Tiotxune 27 Mari Carmen Bilbao Antsone 28 Julita
Intxaurbe Ayo 29 Begoña Ugarte Ugartene 30 Txaro Bikarregi 31 Maria Zarraga
Basabeiti 32 Alejandra Bilbao Erretene 36 Felisa Bidea Aresti 38 Carmen Basarrate
39 Vicente Larrondo Larraina 40 Mari Arondo Agarretxu 41 Pilar Urrutikoetxea
Aresti 42 Carmen Zarraga Agarre 46 Sole Elordui Karaltzo 47 Tomasa Larrabeiti
Gardea 50 Edurne Atxalandabaso Mendieta 52 Milagros Morteru 56 Tere Gorritxune
59 Leandra Erretene 60 Ildefonsa Bilbao Erretene 62 Ines Arteagoitia 63 Maria
Lusia Gorritxune 65 Corpus Etxebarria



“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu.
Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzaile eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi laguntzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Non egingo da hezgati erakusketa?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

Aurreko erantzuna:

Duela 320 urte Derio elizartetat hartu zuten BNek

Irabazlea:

Haritz Cuesta



Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Emakumea, ardo munduan



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

Gure lanbidean gaur egun da biltzanen %25 emakumezkoak direla irakurri dut ASiko (Sumillerren Nazioarteko Elkar-tea) aldizkari tekniko batean. Oso artikulua garrantzitsutzat hartzen dute, erabat positiboa; baina niri, egia esan, ezinegon sortzen dit.

Askok uste dutenaren kontra, gure lanbidea ez zela Frantzia sortu diote artikuluan. Penintsulan sortu zela Felipe II. erregearen garaian, eta horrek "copero" figura asmatu zuela. Frantsesek figura hori berengatu zuten beranduago, eta "sommelier" esan zioten.

Emakumeak hasiera-hasieratik jaso du diskriminazioa ardo munduan, mahastiari zegozkion lanak soilik ahal baitzituen egin: laborantza, mahatsak aukeratzea... Baina inoiz ez ardoaren analisisa, egite edo dastatzearekin zerikusia zuen lanik.

Emakumea XX. mendearen erdialdean hasi zen hurbiltzen ardo mundura ikuspegi tekniko batetik, eta lehenengo emakume enologoak, sumillerak... agertu ziren. Patuaren paradoxek, nire ustez, ekarri dute emakumeek duten zentzumenen pertzepzio handiagoak hainbat mendeetan egon den isiltasunean izatea sorburua. Baita dituzten zuhurtzia, jakituria eta sentsibiltate handiagoez sorburu bera izatea ere. Ezaugarri horiek guztiek gure kolektiboko adierazgarri onena bihurtu ditu emakumeak. Nire esperientzia horren lekukoa da. On egin.

Etxeko sukaldaritza



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

Kalabazin-krema

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 1,5 kg kalabazin
- 200 g gazta ("Filadelfia" edo antzekoa. Horren ordez, jogurt bi bota daitezke)
- Ura
- Gatza

Prestatzeko era:

Kalabazinari azala kendu eta zatitu egingo dogu. Eltze baten 20 minutuan egosten edukiko dogu ur eta gatz apur batez. Ur lar badago, apur bat kenduko dogu. Gaztaia bota eta ondo irabiatuko dogu. Kalabazin-krema epel edo hotz zerbitzatuko dogu.

GALAISIA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Etengabeko ordutegia
Salbino Arana 1-3. SONDIKA

Goiri '78 S. L.
Servicio Oficial
POL. IZARZA
Tfnos: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

RESTAURANTE JATETXE AYRREGOITI
Tfn. Fax: 94 453 24 40 / LAUROETA ETORRIDEA, 37 / 48180 UROLA-BARNA
e-mail: ayrregoititerra.es // www.restauranteyrregoitit.com

Ercoreca
supermerkatuak
Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Txantxetan ari zara, Tanner jauna
J. Dubois

Kaxa huts bat

B. Sarasola

Golgota

X. Montoia

HAUR ETA GAZTE

Juddy Moody, lurraren salbatzailea
M. McDonald

Miss Txatarra

X. Mendiguren

Andoitz eta lurralde ezkutak

F. Morillo

Margolin

J. Ormazabal

Nur

Toti Martínez de Lezea

MUSIKA BIDAIA

56. gelatik

Karelean

A las cinco en el Astoria

La Oreja de Van Gogh

Scream aim fire

Bullet for my Valentine



La oreja de Van Gogh

DENBORA PASA

LETRAZOPA

D	O	Ñ	T	Y	A	O	D	N	O	K	U	F
X	A	S	H	G	Z	J	Y	J	R	Ñ	G	I
P	J	A	L	T	Z	O	A	H	K	E	R	M
F	M	B	U	N	E	D	T	B	A	D	K	A
R	G	F	A	S	D	I	O	D	T	A	B	F
P	E	R	K	Ñ	I	Z	K	P	I	Y	O	E
H	P	U	B	J	D	X	O	E	L	S	L	I
O	M	T	L	E	K	R	K	K	L	J	F	D
S	T	M	I	A	R	X	B	I	E	H	E	R
X	U	T	N	G	Y	N	I	L	A	U	G	E
Ñ	I	N	S	B	P	T	E	O	H	Ñ	N	P
T	O	K	U	Z	R	L	Z	A	N	T	M	E



O	H	I	B	E	T	U	L	E	A	U	I	Ñ
G	J	T	O	U	Y	G	X	O	K	P	M	L
Z	F	H	E	T	G	A	E	F	R	N	G	H
B	A	Z	H	Ñ	E	F	J	U	B	N	M	A
O	A	N	S	M	R	D	E	A	D	T	F	O
K	I	Z	A	E	J	P	O	Y	P	A	B	Y
O	A	S	Y	P	Y	X	D	L	A	E	S	B
T	S	Z	D	K	S	B	K	H	T	T	A	T
Z	Ñ	I	R	L	L	E	L	X	M	S	U	Z
A	R	M	F	P	A	E	T	O	G	I	B	U
B	G	J	K	E	J	R	I	S	N	P	X	Ñ
P	K	N	A	O	G	A	Ñ	M	S	X	D	N

Burutik gorputz osora salto egingo dogu. Ia gai zaren **gorputzean ditugun 7 atalen izenak** aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 73. zenbakiaren erantzuna. Buruan ditugun zazpi atalen izenak.

EUSKAL HERRIKO d-generazioa



aritz eta nagei
AIKOR! 08KO irailaren 189



Antzerkia eta filmak

Sondika

–Yo soy naturaleza, Kiki, Koko eta Moko pailazoaren eskutik. Urriaren 18an, 17:30etan, Kultura Etxean.

Derio

–Larru haizetara antzezlan. Urriaren 17an, 20:30etan, Gurea Aretoan.

Zamudio

–Slava's Snowshow, Arriaga antzokian. Urriaren 24an, 19:00etan.

Lezama eta Larrabetzu

–Disney live! La magia de Mickey, La Casillan. Urriaren 25ean, 18:45ean.

Azokak

Loiu

–Gastronomia eta eskulangintza XVI. Azoka. Urriaren 19an, 10:00etatik aurrera, Loiu. Hegaluze eta txakolinaren dastatzea...

Lezama

–Uzta Eguna, urriaren 5ean: txakolinaren dastatzea, euskal pastela, ezti...

Erakusketak

Zamudio

–Amazonia, Hernando Bernalen eskutik. Urriaren 6tik 17ra, Zamudiotorren.
–Txarribodak Zamudion, urriaren 18tik zemendiaren 1era, Zamudiotorren.

Ikastaroak

Zamudio

–Odolosteak egiten ikasteko ikastaroa. Urriaren 21ean, 19:00etan, Larragoiti txoan.

Lezama

–Txotxongilo tailerra. Urriaren 9an, 18:00etan,

ludotekan.

–Idazmen tailerra. Urriaren 23an, 18:00etan, ludotekan.

Larrabetzu

–Larruzko tailerra. Urriaren 17an, 17:00etan, Anguleri Kultura Etxean. 6 urtetik gorakoentzat.

Irteerak

Txorierri

–Kilometroak, urriaren 5ean, Iruran. Izena ematea: urriaren 2ra arte, udaletxeetan eta Mankomunitatean.

–Nafarroa Oinez, urriaren 19an, Iruñean. Izena ematea: urriaren 14ra arte, udaletxeetan eta Mankomunitatean.

Zamudio

–Izabara, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Urriaren 3tik 5era.

–Errioxara, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Urriaren 26an.

Lezama

–Sintxita erreka (Gorbeia), Gailur mendi taldeak antolatuta. Urriaren 5ean.

–Orizol mendira, Gailur mendi taldeak antolatuta. Urriaren 26an.

Larrabetzu

–Puenting egitera Azkoitiara, urriaren 25ean. 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta.



Hitzaldiak

Derio

–Mikologiari buruzko jardunaldia, Untza mendi taldeak antolatuta. Urriaren 21ean, 19:00etan, CAN-en.



Musika

Derio

–Oskorri taldearen kontzertua. Urriaren 10ean, 22:00etan, Mikel Deuna plazan.

Bestelakoak

Loiu

–Liburutegien Eguna, urriaren 24an. As-tean zehar, hainbat ekitaldi.

Derio

–Merkataritza eta Ostalaritza Astea, urriaren 10ean eta 11an.

–Gazte jaia. Urriaren 18an, 18:00etatik aurrera, kanpoko frontoian.

–Errezitaldi poetiko musikala, Fernando Zamora eta Luis Mari Landaluzeren eskutik. Urriaren 24an, 19:00etan, liburutegian.

Zamudio

–Plater-tiroko saioa, Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta. Urriaren 11an, 10:00etan, Teknologi Parkean.

–Liburutegien Eguna, urriaren 25ean.

Lezama

–Txakolinaren dastatzea. Urriaren 4an, 12:30etan, Kultura Aretoan.

–Erreka Eguna, urriaren 19an.

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 455 50 08

SEBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa

Lehendakari / albarola enpresak, 2 beheak
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Móvil: 615 742 788

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



www.itp.es

GRUPO
Industria de Turbo Propulsores, S.A.



Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

Bidaia-

asistentziako

doako aseguru

abantailak era

guztietako 2.000

establezimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko giltza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbkk.es

orrian